

## **Mugak gaindituz. Euskara urrutitik ikasi**

*Jose Frantzisko Zinkunegi*

*Mugak gainditzea beti izan da gizakiarentzako erronka. Zerbait gauzatu orduko hurrengo urratsa nola egin aztertzen hasten gara, gauden egoeratik pixka bat harago nola joan, alegia. Bizitzako arlo guztietan gertatzen da hori eta, jakina, hizkuntzen ikas/irakaskuntzan ere bai. Bada esaera txinatar bat zera dioena: “Bidaiarik luzeena egiteko ere beti lehenengo urrats bat egin behar da”. Eta horixe da artikulu honen xedea, hizkuntzen ikas/irakaskuntzan, ohiko jardueratik harago urrats xume baten berri ematea.*

Hizkuntzen ikas-irakaskuntza, gizartearen beste edozein eremu bezalaxe, etengabe dabil ibilian. Horrela, azken hamar urteotan aldaketa nabarmenak gertatu dira bai metodologiari dagokionez bai eskaintza zabaltzeari dagokionez. Proposamen metodologiko nagusiak jasota daude HEOK dokumentuan. Hain zuzen ere, gizartean hori ezartzea izan da azken urteotako HABEren erronka nagusienetako bat. Eta eskaintza zabaltzeari dagokionez, berriz, esango nuke autoikaskuntza bidez ikastea dela adierazlerik nabarmenena.

Esan bezala, gizartearen aldaketak premia berriei erantzun beharra ekarri du. Gaur egungo bizitzeko erritmoa dela, ikasleen profila dela, teknologiaren aurrerapen ikaragarria dela, gure ikas/irakas eskenatokia arras bestelakoa da. Premia berri horiei erantzuteko bideetako bat Autoikaskuntza bidezko ikas/irakaskuntza garatzea izan da, eta, ahalegin handia egiten ari gara Helduen Euskalduntzean dihardugun eragileok norabide horretan.

Mendearen aldaketaren bueltan autoikaskuntzaren inguruan hausnarketa egiteko batzorde bat osatu genuen Euskal Herrian lanean ari ziren eus-

kaltegi sare guztietako ordezkariez osatua eta, nolabait esateko, lanean hasteko marko orokor bat adostu genuen. Eta hark eskaini zizkigun gero-  
ra egin beharreko lanari ekiteko oinarrizko irizpideak.

Horren ondorioz, hainbat urrats egin ditugu azken bost urtetan. Lehenengoak ikasteko moduarekin du zerikusia: ikasteko modu desberdinak garatzea izan da. Betidanik, jarduerarik hedatuena –ia bakarra esango nuke– talde-jarduna izan da. Eta jarduera berriak garatzearen, ahalik eta ikasle gehienei ikasteko aukera desberdinak eskaintzearen, taldeko jardunetik bakarkako jardunera bide berriak urratzen hasi ginen, labur esanda, ikaskuntza presentzialetik, aurrez-aurrekotik, sinkronikotik, ausentzialera, urrutikora, asinkronikora egin beharreko bidea jorratzen.

Ikasteko era desberdinak garatzearekin batera, beste aldagai bat ere hartu behar izan genuen oso kontuan: nor bere kasa ikasteko gaitasuna, hotz, ikaslearen autonomia, nor bere ikas-prozesuaren jabe bezala ulertuta.

Europako Erreferentzia Markoak *ikasteko gaitasuna* deitzen dio eta honela dio 6.4.6. atalean:

“Ikasteko gaitasunari dagokionez, ikasleengandik espero da edo ikasleei eskatzen zaie ikasteko trebetasunak eta trebetasun heuristikoak garatzea, baita beren autoikaskuntzaren ardura hartzea ere (ikus 5.1.4. saila):

- a) irakaskuntza/ikaskuntzaren ondorio gisa besterik gabe, aparteko planifikazio eta antolaketa berezirik gabe;
- b) ikaskuntzaren ardura irakasleengandik ikasleengana era progresiboan transferituz eta ikasleak beren ikaskuntzari buruzko gogoeta egitera eta esperientzia hori beste ikasleekin elkarbanatzera bultzatuz;
- c) ikasleei parte hartzen duten ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuei buruz kontzientzia hartzen lagunduz;
- d) ikasleak hainbat aukera metodologikotan partaide gisa sartuz,
- e) ikasleei beren estilo kognitiboa ezagutaraziz eta beren ikasketa-estrategia propioak gararaziz.

Erreferentzia Markoaren erabiltzaileek gogoan izan beharko dute eta, hala dagokionean, zehaztu:


Zer urrats eman behar dituzten ikaslea hizkuntzaren erabiltzaile eta ikasle independente izan dadin sustatzeko.

Hala ere, ikaslearen autonomia, gaitasun bezala ulertuta, beraz garatu daitekeen zerbait bezala ulertuta, ez da bakarrik autoikaskuntza bidezko ikaskuntzan garatu beharreko gaitasuna, talde-jardunean ere garatu beharrekoa, baizik. HEOKek dion bezala, ikas-prozesuak ikaslearengan ardaztua izan behar badu gaitasun hori garatzea ezinbestekoa da edozein eredutan ere.

Bi aldagai horiek gurutzatzen baditugu elkarrekin, hots, autonomia *baitik ez*-erako *continuum*-a, batetik eta, ikaskuntza presentzialetik ausentzialerakoa bestetik, aplikazio praktiko desberdinak definitu ahal izango ditugu. Beraz, bi aldagai horiek gurutzatuta aterako zaizkigu ikasteko aplikazio desberdinak, eta lau laukitan koka ditzakegu:

- Presentziala // Autonomia ez
- Ausentziala // Autonomia ez
- Presentziala // Autonomia bai
- Presentziala // Autonomia bai.

.1:



Ikus dezakegunez (.1), mutur batean ikaskuntza presentziala eta autonomiarik gabekoa eta, bestean, ikaskuntza ausentziala eta autonomiaduna aurki ditzakegu eta batetik besterako bidea *continuum* bat da, zeinetan aplikazio praktiko desberdinak koka ditzakegun.

Orain azalduko dugun esperientzia ere hortxe kokatuko dugu: ikasteko modua ia erabat ausentziala da eta autonomiari dagokionez, “*autonomia ez*” laukian kokatuko genuke lehenengo begiratuan. Baina, ereduaz aldu ahalean konturatuko gara lehenengo itxura batean eman lezakeen baino autonomia handiagoa behar dela bide horretan aurrera egiteko. Dena dela, jarraian azalduko dut zehatzago.

**Benetako premia  
bati erantzun  
nahia**

HABEk aspalditik du indarrean “Euskara Munduan” programa. Dagoeneko 16 urte iragan dira programa horren lehen urratsak egin zirenetik, “Argentinan Euskaraz” martxan jarri zenetik, alegia. Programa horren helburu nagusia da Euskal Etxeetan euskarazko eskolak emateko baliabideak garatzea. Horretarako, bi lan-lerro nagusi ditugu, batetik, giza-baliabideak garatzea eta, bestetik, ikas-materialiez hornitzea. Izan

ere, euskarazko eskolak eskainiko badituzte ikasleak behar dituzte, baina, horiekin lan egiteko irakasleak ezinbestekoak dira.

Asko eta asko dira euskara-ikasleak dituzten Euskal Etxeak baina horiekin lanean aritzeko irakaslerik ez dutenak. Behin eta berriro egiten duten eskaria da, hain zuzen ere, Euskal Etxe bakoitzak irakasle propioa izatea.

Horixe izan zen esperientzia honen abiapuntua. Argentinako 40 irakaslegai genituen, ezer baino lehen, euskara ikasi eta ondo jakin behar zutenak, gero irakaskuntzan trebatu eta Euskal Etxeetan eskolak emango zituztenak. Horiek plan bat bururatu zen: bertan eskolak eman, urtero bi barne-ikastaro eskaini eta maila jakin bat lortutakoan Euskal Herrira ekarri euskalduntze-prozesua bukatzera. Ikus Hizpideren 51. alean “Euskara euskaldunen atzetik (I)” (Zinkunegi, 2002: 34-47). Baina, orain arteko planteamendu hori alde batera utzi eta teknologiak ematen dizkigun aukerak baliatuz bide berriak urratzeari ekin diogu helburu bera lortzeko.

Irakaslegai horietako batzuk, gutxi batzuk, euskalduntze-prozesua beren Euskal Etxeetan egiteko aukera zuten. Gehienek, ordea, ez zuten ikasgiletara joateko modurik. Guk bi errealitate horiei erantzun behar genien guztiak puntu berera eramateko proposamena eginez.

## **Taldea Birtualizatu**

Egiteko horretan, ate berriak ireki dizkigu aurrerapen teknologikoak. Hau ez da gauza berria, teknologiak beti izan du leku garrantzitsua hizkuntzen ikas/irakaskuntzan. Urte asko dira irrati-kasetak erabiltzen hasi ginela. Gero, telebista, bideoa, ordenagailuak eta abar etorri ziren, baina azken bi hamarkadotan egin duen aurrerapenak sekula irudikatuko ez genuen egoera/mundua gauzatzeko aukera eskaintzen digu, eta, geldiezi-na da birtualizaziorantz egin dugun jauzia.

Talde bat “birtual” bihurtzei ikasle-zerrenda bat osatu eta urrutitik irakasle bat jartzea baino gehixeago da. Nolabait esateko, errealitate birtual bat sortzea da. Hau da, elkarreraginerako gune bat, leku berean eta aldi berean zertan jazo beharrik ez duena.

Gaur egun, teknologiak horrelako guneak sortzea ahalbideratzen badu ere, euskarri horien erabilera nahikoa mugatua da eskaintzen duten potentzialarekin alderatzen badugu. Eta garapena, horretara egokitzeko dugun gaitasuna baino askoz ere bizkorragoa da.

Argi dago lanerako bide berriak eskaintzen dituela, jadanik praktikan jarriak batzuk, eta, poliki-poliki geureganatzen joango garenak beste asko.

Birtualizazioak gune berriak, orain arte ezezagunak, sortzeko aukera ematen digu. Eta berriak diren heinean jokabide berriak ere erabiltzea eskatzen digu, horietatik etekinik ahalik eta handiena ateratzeko.

Horrek lan-ohiturak aldatzea eta sormena erabiltzea eskatuko digu. Eta, oain arte ikasgelan eta aurrez aurre egin duguna, espazioaren eta denbo-

raren mugak gaindituta, bestela jarduteko parada emango digu. Ondorioz, gunea elkarreragina, informazioa, ikaskuntza eta komunikazioa bermatzeko leku bihurtzea eskatzen du. Aurrez aurreko jarduna eta bertualitatearen arteko alderik nabarmenena bidean dago.

Ikas-helburua bera izan arren, jomugara iristeko bideak desberdinak dira eta horietako bakoitzak berari egokitzea eskatzen digu.

Horrelako guneetan ikasteko, bi eratako osagaiak eduki behar dira kontuan oinarri-oinarrian: metodologikoak eta antolakuntzazkoak. Gure hartzaileen ezaugarriei erreparatuta: helduak, langileak eta teknologia berrien erabilera ez oso iaioak gehienak, proposamen metodologikoek ikaslearengan ardaztuak behar dute izan. Horrek eskatu digu sistema haiei egokitzea, batez ere; eta ez haiek sistemari, nahiz eta horretan beren ahalegintxoak egin behar izan duten. Izan ere, bi herrialde hain desberdinetan aritzeak, Internet-ekin konektatzeko oso egoera desberdinekin topo egiteak, Internet-en prezioa, ordenagailuen konfigurazioak, eta abarrek eragin handia izan zuten hasieran. Eta ez zen beti erraza izan abiatzea eta martxa hartzea.

Baina, hastapen-arazo horiek gainditu ondoren, gure ahalegin guztiak eskaini genizkion ikas-prozesutik eta genetik ahalik eta zukurik gehiena ateratzeari. Horrela, banan-banan lortu genuen bidaiari guztiak abian jarzea eta berehala hartu zuten martxa.

Gure nahia zen euskaltegira ezin ekar genitzakeen ikasle horiei euskaltegia etxera eramatea.

Horrelako gune batean aritzeak ez du berez planteamendu metodologiko jakin bat eskatzen, ikasgelan ere gertatzen den bezalaxe, ugari izan daitezke. Gurean, talde-jarduna irudikatu genuen, non irakasleak eskola-saioak programatu, materialak aukeratu eta ikasleei zer egin behar duten esaten baitie. Horixe izan zen abiaburua, ikastaldea bere irakaslearekin, baina ikasleak 10.000 kilometrotara egonik.


Egoera horretan, 2004tik 2007ra bitartean garatu beharreko ikasketan plan proposamena egin genion FEVAri (Federación de Entidades Vasco Argentinas). Ikasleak lanik gehiena bakarka egingo zuten eta urtero bi barne-ikastarotan (7-9 egunekoak) parte hartzeko aukera izango zuten, bat neguan eta bestea udan. Eta dedikazioari dagokionez, bi aukera eskaini genizkien eta horren arabera aurreikusi genituen emaitzak.

Lehenengoak 3 orduko lana, bakarkakoa, eskatzen zuen astero. Eta horrela urteko urrats bat egitea aurreikusi genuen. Beraz, helburua, hiru urtetan 1A maila gainditzea zen. Bigarrenak, ordea, bost orduko lana eskatzen zuten astero eta, horrela, urrats eta erdiko aurrerapena urteko bermatu nahi genien. Ondorioz, epe horretan 1B mailaren bukeran egon zitezkeen ikasleak, hau da, 2007ko uztailean (planaren bukeran).

.2: Irakasleen trebakuntza

**Irakasleen trebakuntza: Euskalduntzea**


3 maila=12 urrats.



A aukera: 3 ordu astean, urrats bat urteko

**Irakasleen trebakuntza: Euskalduntzea**


3 maila=12 urrats.



B aukera: 5 ordu astean, 1,5 urrats urteko

Gehiengoa astean 3 orduko konpromisoa hartzearen alde azaldu zen eta horixe izan zen abian jarri genuena. Lehen esan bezala, bi hartzaile mota desberdin genituen eta bi bide desberdin proposatu genizkien:

.3: Heziketa-plana



Taulan ikus daitekeen bezala (ikus .2), aukera bi zituzten: urrutiko ikas-kuntzaz baliatzeko edo Euskal Etxeetako taldeetan aritzeko. Horretarako, ikasturte bakoitzaren hasieran, ikasturte horretarako aurreikusitako programa bidaltzen genuen Euskal Etxeetara, ikasturtean zehar taldean landu beharreko edukiekin, gero, ikasleak barne-ikastaroetan elkartzen zirenean, denak eduki bertsuak landuak izateko. Bi bide horiek aukeran eman ondoren, 40 irakasle gaik aukeratu zuten urrutiko ikas-kuntzaren proposamena, “*Irakaslearen Gunea*”-ren bidetik.

## **Zerbitzua eratzten**

Aurreko laukian ikus daitekeenez, trebatzeko planak bi atal nagusi ditu. Batetik, Euskal Etxeetako ohiko eskoletan edo urrutitik kudeatutako gune birtualean egin beharreko bidea. Bestetik, berriz, bi barne-ikastarotan parte hartzeko aukera urtero.

Ikasturte bakoitza martxoan hasten da eta hurrengo urteko urtarrilean bukatu. Horrela, martxotik uztaileira bitartean euskarazko eskolak eskaintzen zaizkie eta uztailearen bigarren hamabostaldian egiten da lehenengo barne-ikastaroa Argentinan. Berriz ikasturteari heltzen zaio eta abuztutik abendura bitartean bakoitzak euskara ikasteko aukeratu duen bideari jarraitzen dio urtarrilaren bigarren hamabostaldian bigarren barne-ikastarora joan aurretik.

Barne-ikastaro bakoitzaren iraupena 9 egunetakoa izaten da, batez beste. Hau da, larunbat batean hasten da eta hurrengo aste osoa irauten du.

Guretzat, benetako erronka zen urrutitik ikastea aukeratu zutenei ikaste-ko sistema egokia eskaintzea Euskal Etxeetako taldeetara joaten zirenen pareko euskara-maila bermatuko ziena.

Batetik, ikas materialak eskura jarri behar zaizkie eta, horretarako, euskarri horretan erabiltzeko modukoak izan behar dute. Kontuan hartzekoa zen ikaslea bakarka ari dela ordenagailuan lanean eta irakaslea ez duela aurrean, ikasgelan irakaslea aurrez aurre izateak ematen dion balioa hemen beste era batera bermatu behar zaio.

Horregatik, ikas-materialak sortu/egokitu beharra izan genuen lehenengo eginkizun. Hasteko, jarduera guztiek bakarka burutzeko modukoak izan behar dute. Beraz, argibide zehatzak eman behar zaizkio ikasleari, eginkizun hori burutzeko behar dituen azalpenak jasotzeko bidea eskaini, sor dakizkiokeen zalantzak uxatzeko modua eta egindakoaren feedback-a eskaini. Labur esanda, materialak bakarka kontsumitzeko modukoa izan behar du.

Bestetik, taldean ikasten dutenek irakasleak eskaintzen dien zerbitzuaren parekoa hauei ere eskaini behar zaie. Horrela, sor daitezkeen gorabeherak oro saihestu behar zaizkie: hizkuntzari buruzko zalantzaren bat dutenean, aholkuren bat behar dutenean, ikas-prozesuan gidatzeko laguntza behar dutenean, ebaluatu behar direnean, bestelako materialak nahi dituztenean... Horrela, ohiko taldeetan irakasleak egiten dituen lanak hemen ere urrutiko irakaslearen esku uztea erabaki zen, bete zitezkeen neurrian, eta euskarri horrek bideratzen uzten ez zuena beste era batera bermatu behar zitzaion ikasleari.

P. Riley-k “Autonomy and Independence in Language Learning” liburuan oso ondo zehazten ditu irakaslearen eta aholkulariaren eginkizunak.

<b>IRAKASLEA</b>	<b>AHOLKULARIA</b>
Helburuak ezarri.	Erabiltzailearen informazioa, lortu eta konturarazi: euskara ikasteko zergatia, beharrak eta helburuak.
Ikastaroaren edukia erabaki.	Zergatik, zertarako, nola, zenbat denbora.
Materiala aukeratu.	Materialak iradoki, beste baliabideak ikusarazi.
Denbora, tokia eta erritmoa erabaki.	Antolatzeko moduak iradoki.
Klaseko lan egiteko modua erabaki.	Metodologia iradoki.
Elkarreragina hasi eta kudeatu.	Erabiltzaileari entzun eta erantzun.
Ikas-prozesuaren jarraipena.	Informazioa interpretatu.
Gertatzen denaren informazioa gorde: etxerako lanak, klasean gertatzen dena...	Jardueraren jarraipena eta kontrola ikasleak berak eraman dezala iradoki.
Edukia azaldu.	Teknikak azaldu.
Galderei, zalantzei... erantzuna eman	Ordezko prozedurak eskaini.
Zuzendu eta notak jarri.	Autoebaluatzeko tresnak eman.
Testak, azterketak...	Autoebaluaizari feedback-a eman.

(P. Riley: *Autonomy and Independence in Language Learning*)

Gurean, gunea kudeatuko zuenak bi funtzioak bete behar zituen eta bien arteko uztardura egin genuen.

<b>URRUTIKO IRAKASLEAK</b>	<b>IKASLEAK</b>
Helburuak ezarri.	Astero gutxienez 3 orduko konpromisoa hartu.
Ikastaroaren edukia erabaki.	Sarbidea bermatu.
Materiala aukeratu: egokitu/sortu.	Jasotakotik zer egin eta zer ez erabaki, era orekatuan.
Antolatzeko moduak iradoki.	Denbora, tokia eta erritmoa erabaki.
Metodologia erabaki.	Lan egiteko modua erabaki
Komunikazio-bideak erabaki eta bultzatu.	Irakasle eta beste erabiltzaileekin harremana gauzatu.
Ikas-prozesuaren jarraipena.	Informazioa interpretatu.
Zer gertatzen den jaso: etxerako lanak, plataforman gertatzen denaren berri...	Irakasleari informazioa eman.
Edukia eta teknikak azaldu.	



Urrutiko Irakasleak	Ikasleak
Galderei, dudei... erantzuna aurkitze-ko bidea eman, eta zenbaitetan, zuzenean eman.	Irakasleak emandako baliabideekin zalantzak argitu, ezinbestean jo irakaslearengana...
Zuzendu eta notak jarri.	
Testak, azterketak...	

Ikus daitekeen lez, proposatu genien jarduera ez da asko urruntzen ohiko taldeetako jardueratik, euskarriak ezinbestean eskatzen zuenean baka-rik.

### **Joko-arauak zehazten**

Horrelako talde batekin aurrera egiteko ezinbestekoa da bakoitzaren eskubide eta eginkizunak garbi edukitzea. Horretarako, ikasleekin negoziatu behar da eta, negoziazio horren ondoren adosten dena bete. Alde batetik, garrantzizkoa da haien betebeharrak zehaztea; eginkizunak, dedikazioa, eta abar, eta bestetik, izango duten asistentzia, laguntza... adostea.

Horrela, hauxe da adostu genuen joko-zelaia. Ikasle bakoitzak, astero hiru bat orduko lana egin behar du bakarka. Horretarako, astelehenero unitate erdi bat jasoko du eta horrekin batera egin behar diren instrukzio argiak. Saiatzen gara material gehiena bakarka erabiltzeko modukoa izan dadin, baina, zenbaitetan irakasleari bidali behar dizkiote hainbat ariketa eginak. Hori gertatzen denean, bi asteko epea dute ariketak bidaltzeko, hortik aurrera, unitateak, atzeratuak ere, beti eskura badituzte ere, feedback-a jasotzeko orduan bi asteko epea dute. Epe horretatik kanpo ez zaie zuzenketarik bidaliko.

Bestalde, oso garrantzitsua da asistentzia eta gutxienez %80koa bermatu behar dute eta ikastaroa guztiz dohain izango dute. Horrez gain, ikasle horiek neguko eta udako barnetegietan parte hartzeko aukera izango dute.

Asistentzi kopuru horretara iristen ez badira, ikaslea proposatu duen eus-kaltegiak, ikasle horri dagokion kostua itzuli egin beharko du.

Ikasle guztiek izango dute irakaslea eskura, baina ez era sinkronikoan, gehienetan asinkronikoa izango da. Berarekin harremanetan egoteko modu bat baino gehiago eskaintzen zaizkio; irakaslearen gunearen bidez eta e-mailez nagusiki, baina zenbaitetan, egoerak hala eskatzen duenean *skype* edo txat-aren bidez konektatzeko aukera ere ematen zaie (sinkroni-koa hau).

Azkenean, bakarka egiten duten lanarekin eta urteroko bi barne ikastaro-ekin osatzen da ikasturtea. Amaieran txostena egiten da, bakoitzaren aprobetxamenduari buruzkoa eta adostutakoa bete dutenekin aurrera eta besteak bertan behera uzten dira. Lehentxeago esan bezala horiei dago- kien kostua Euskal Etxeak itzuli egin behar du.

## **Atzean nor?**

Ikas/irakaskuntza eredu honi heldu genionean, argi geneukan, teknologiak hamaika bide errazten bazituen ere, protagonistak ikasleak eta irakasleak zirela. Honelako ekimen batekin aurrera egiteko ezinbestekoa da partaide guztien konpromisoa. Horregatik, ikasle eta irakasleak argi zituzten joko- arauak.

Taldea ezingo zen abian jarri ikaslerik gabe eta horien ikasteko motibazio sendorik gabe. Baina gidaria ezinbestekoa zen. Gurditik tira egingo zuen irakaslea, edo aholkularia, edo bidai-laguna... beharrezkoa zen.

Horrelako euskarri batean trebatzaile denaren eginkizun nagusienetakoa ikasleen parte hartzearen bideratzailea izatea da, eta, bere eginkizunak irakasle soil izatetik harago joango lirateke.

Derrigorrezkoa da euskarriak hain hotza egiten duen ikas-prozesuari giza kutsua ematea, giroa samurtzea, makinaren aurrean eta bakarrik aritzearen sentipena saihestea. Horregatik, atzean dagoen pertsonak, irakasleak, aholkulariak, bideratzaileak,... hainbat eginkizun hartu behar ditu bere gain, sarritan, aurrez aurre ari denak hartzen dituen bezalaxe, jakinda, elkarreragina sustatu behar duela eta ikasleen erreakzioa ez dela berehalakoa, aurrez aurreko jardunean bezala.

Taldea antolatu beharko du ikasleekiko etengabeko elkarreraginean ikasteko giro egokia sortu, kide guztien parte hartzea bultzatu eta bideratu, ikasgune interesgarrietan arreta jarraraziz.

Era horretako erronka bati aurre egiteko hainbat komunikazio-estrategiaren eta trebetasunen berri jakitea lagungarri gerta badaiteke ere, ezagutza ez da nahikoa. Horiek guztiak ibilian jartzeko gaitasuna ere beharrezkoa da.

Horrelako eginkizun bat arrakastaz aurrera eramateko atzean pertsona bat behar da, giza harremanetarako erraztasuna duena, proiektuan inplikaturik dena, banakako harremanak ezartzeko gai dena, ingurunea, bere osoan, dinamizatu eta kudeatzeko gai dena, alegia. Eta horretan bete-betean asmatu genuen gurdi hau gidatuko zuen itzaina aukeratzekoan.

Proiektu honen arrakasta berari zor diogu neurri handi batean. Ikasleekin izandako elkarreragina aparta izan da, elkarrengandik 10.000 kilometrotara egon arren. Ez dut aipatu gabe utzi nahi, urtero, urtarrilean, Argentinan antolatu ditugun barne-ikastaroek ere asko lagundu dutela horretan. Ikasle eta bideratzailearen arteko harremana estua eta aberatsa izan da. Harremanak pertsonalak eta gertukoak dira eta ez hotzak horrelako euskarri bati askotan leporatzen zaizkion bezala.

Sistemaren erabilerari buruzko instrukzio argiak eman ondoren, eta, hasiera hasieratik garbi utzita zein izango zen bakoitzaren eginkizuna eta bete beharrak. Guk astero bidaliko genien materiala eta beraiek bi aste zituzten itzultzeko. Bi aste horietan zehar feedback-a emango zitzaion, baina handik aurrera ez. Hala ere, material guztia karpetetan gordeko genuen, nahi zuenak nahi zuenean eskuragarri izan zezan, baina jarritako egunetik bi aste baino gehiago igaro baziren ez zuen feedback-ik jasoko.

Horrela egingo genuen martxotik uztaileira bitartean, eta, guztiek %80tik gorako parte-hartzea izan behar zuten barnetegietan parte hartzeko. Hauetan ere %80ko asistentzia eskatzen genien gutxienez. Bi baldintza horiek bete ezker, aurrera. Hau guztia doan izango zuten. Betetzen ez bazituzten, ikasle bakoitzari zegokion kostuaren zati proportzionala bere Euskal Etxeak ordaindu behar zuen eta, aurrerantzean, ikaslea sistematik kanpo geratuko zen. Ikasturte bakoitza honela antolatuko genuen. Lehenengo ikasle bakoitzak egin beharreko lana zehaztu genuen, astean 3 bat ordutako jarduna eskatuko ziona. Gehiagorako materiala bidaltzen bagenien ere, beraiek aukeratu behar zuten zer egin, baina argi azaldu genien, aukeratzen zituzten jardueran trebetasun guztiak lantzekoak izatea, minzamina ezik.

#### **40 irakaslegai urrutitik euskalduntzen**

Ikasle guztiak Euskal Etxeek proposatutakoak ziren. Euskal Etxe bakoitzak aukeratu zuen bere irakasleak eta, bien artean hitzartu zuten konpromisoa. Ezinbesteko baldintza zen ikasi ahalean Euskal Etxeetan eskolak ematen hastea.

Hasiera batean, 25 pasahitz banatu genituen, baina horien atzean, guztira, 40 ikasle zeuden. Bertan, Arrecifes, Bahía Blanca, Tandil, La Plata, Chacabuco, Madalena, Mendoza... eta abarreko jendea bildu zen, Argentinako edozein puntutako jendea, alegia.

Kontua da guregandik 10.000 kilometrotara zeudela, baina, beraien artean ere distantziak ikaragarriak zirela eta ez zutela elkartzeko aukerarik. Esate baterako, Rosariotik Bahía Blancara 1.200 kilometro baino gehiago daude.

Ikasleen tipologiari dagokionez ere, era guztietako jendea taldekatu genuen, bai adinez bai ogibidez. Adinari dagokionez, 16 urte eta 65 urte bitarteko ikasleak ziren eta horien ogibideak ere asko eta askotarikoak, besteak beste: irakasleak, ikasleak, etxeakoandreak, idazkariak eta abar. Euskal Etxeei dagokienez ere oso funtzio desberdinak betetzen dituen jendea dago, batzuk zuzendaritza-batzordeko kide, baten bat lehendakari ere, beste batzuk euskara komisiokoak eta bazkide soil denik ere.

Horietako askok, lehenengo urtea bukatu orduko, eskolak ematen hasi behar izan zuten. Izan ere, hainbat Euskal Etxetan ez zuten euskara-maila altuagoko inor eta ikasi ahala erakustea tokatu zitzaizen askori.

Ulertzekoa denez, euskara jakitea –eta horien kasuan, euskalduntzearen hasierako mailatan egotean areago– ez da nahikoa irakasle izateko, eta, ikasitakoa irakasten ere jakin behar da. Horregatik, eta jardueraren kalitatean ere eragin nahian, urtero, udazkenean (Argentinako udaberria) edo udaberrian (udazkena Argentinan), hots, bi barne-ikastaroen erdi aldera, “jardunaldi pedagogikoak” eratu izan ditugu, irakaskuntzarako baliagarriak izango zaizkien gutxiengo tresna eta irizpideak beregana ditzaten.

Jardunaldi horiek gaztelaniaz egiten dira eta irakaskuntzan adituak diren irakasleak izan dituzte, Argentina zein Euskal Herrikoak, eta asteburu batean burutu izan dira, hau da, bi egunetako tailerrak eratu izan dira.

Parte hartzea oso zabala izan da. Eta, denak biltzeko moduko tokiak aukeratu izan dira. Gehienak Buenos Airesen egin dira, distantziak distantzia, herrialde guztiekin komunikazio-bide egokiak dituelako.

Hala ere, 1000 kilometrotik gora egitea, autobusez, bi egunetako jardunaldietan parte hartzeko, ez da meritu makala. Horrekin lotuta, eta distantzien haritik, esan nahi dut, oso parametro desberdinak erabiltzen ditugula eta, Euskal Herrian, guretzat ikaragarrikoa izan daitekeena han askoz ere arruntagoa izan daitekeela.

Gainera, beraiek oso ohituta daude autobusez ikaragarriko distantziak egiten. IV. eranskinean ikus daiteke. Azkenekoak 2006ko udaberrian (udazkena Argentinan) egin ziren (V eranskinean ikus dezakezu).

Azkenean, 2004ko martxoan, ikasle bakoitzak aukeratutako bideari ekin zion euskalduntze-prozesuan aurrera egiteko. Egin genuen lehenengo gauza, uztailean bitartean landuko genuen programa adostea eta Euskal Etxe guztietara bidali genuen, ondoren. Horrela, euskal etxeetako taldeetan ikasten zutenek ere, programa hori bete ezkerro (ikus I. eranskina), aukera zuten barne-ikastaroetan parte hartzeko.

Irakaslearen gunean 25 pasahitz banatu genituen. Pasahitz horietako batzuen atzean ikasle bakarra zegoen, baina, zenbaitetan bi eta hiru ere aritzen ziren pasahitz berarekin. Guztira 40 bat irakaslegai hasi ziren.

Martxoan hasi eta uda (negua Argentinan) bitartean 14 unitate bidali genizkien eta hamalau gai desberdin jorratu, esaterako: “Nor naiz ni”, “Nire familia”, “Zergatik ikasten duzu euskara?”, “Zer gustatzen zaizu?” eta abar.

Hori guztia egiteko, aurretik *Maizpide* barnetegian bertan nahiz beste euskaltegi batzuetan erabilitako materiala aukeratu genuen. Aisa materiala ere dezente aztertu genuen, batez ere, lehenengo saioetarako. Bakarka 1-etik ere hainbat ariketa atera genituen.

- Astero agindutakoa egiteko hamabost eguneko epea izan dute. Epez kanpo bidalitakoak ere zuzendu ditugu.
- Ahalik eta jarduera komunikatiboan egiten saiatu gara. Hasieran zaila da, baina aurrera joan ahala horretara bideratu ditugu.
- Aukera zen heinean material errealak erabili ditugu: haurrentzat eginak diren joko interaktiboak (clic programa, haurrentzako ipuinak, web orri euskaldunak etab.).
- Ikasitakoak nolabait indartzeko eta eduki berrietara egokitzen joateko, eleberri antzeko bat idatzi diegu 5. saiotik aurrera.
- Entzumena ere landu dugu, poliki-poliki ohitzen joan daitezten eta gu nolabait hurbiltzeko (esaterako, lehenengo ikasgaietan, irakasleak bere aurkezpena egin du).
- Euskal kulturaren berri eman diegu, oro har, asko gustatzen zaie-eta. Argentinako kontuak ere erabili ditugu, egin beharrekoak hurbilagokokak gerta dakizkien.

- Ikasten laguntzeko estrategien gaia, azaletik bada ere, jorratu dugu saio bakoitzean.

Lehenengo seihilekoa amaitu ondoen, Argentinan, Tandil-en elkartu genituen ikasle guztiak lehenengo barne-ikastaroa egiteko. 39 ikasle elkartu ziren, eta, aurreko hilabeteetan egindako lanaren emaitzaren araberako sailkatu genituen hiru taldetan. Ordurako 14 unitate landurik genituen eta material hori guztia lehenengo aldiz eskutan edukita elkartu ginen.

Aurrez landutako gaien inguruan aritu ginen, batez ere, ulermena lantzen, mintzamina alde batera utzi gabe. Batzuek lehenengo aldiz elkar-tzen ziren euskara ikasteko.

Hilabete horietan lan handia egin zuten ikasle gehienek, bai euskarrira egokitzeko eta baita euskalduntzean aurrera egiteko ere. Hala ere, hainbat ikaslek gora behera teknologiko handiak izan zituzten eta apenas lortu zuten konpontzea seihilekoaren bukaerarako (ikus II. eranskina).

Oraingoan, eta lehenengo seihilekoa zenez, ez genuen amaieran punimendurik ezarri eskatutako asistentzia bete ez zutenen artean. Izan ere, oso zaila gertatu zitzaigun jakitea benetan utzikeriaren ondorioz ala arazo teknikoen ondorioz izan zen bereiztea. Beraz, ordura arteko ikasle guztiak izango zuten bigarren seihilekoan aritzeko aukera.

Barnetegia bukatu zenean, konturatu ginen ezin genituela denak talde berean mantendu. Izan ere, batzuen eta besteen artean alde nabarmenak zeuden mailari zegokionez. Bestalde, ikasleen iritziak entzunda, batzuentzat abiadura larregia zen, beste batzuentzat egokia zen, eta abar.

Gauzak horrela, 2004ko abuztuan, bigarren seihilekoa heltzerakoan, barnetegian aritutako talde berberekin aurrera egitea erabaki genuen eta *“Irakaslearen gunean”* ere hiru taldetan banaturik aritu ziren bigarren seihilekoan.

Hasierako taldeak, atzera bueltatu ginen, eta, berriro, 5. unitatetik aurrera ekin zioten. Tarteko maila zutenekin 10. unitatetik aurrera egin genuen eta mailarik jasoena zutenekin uztailan utzitako puntutik aurrera abiatu ginen.

Aurreko epean bezalaxe, oraingoan ere, abuztutik abendura bitartean landuko genituen edukien zerrenda bidali genuen, Euskal Etxeetako taldeetan ari zirenek *“Irakaslearen gunean”* ari zirenen eduki berak landuak izan zitzaizkien hurrengo barnetegira joateko garaian.

2005eko urtarrilean egin zen hurrengo barnetegia Argentinan. 36 ikaslek hartu zuten parte, hiru taldetan banatuak: maila baxuenekoak batean, altuenekoak, bestean, eta hirugarrena tarteko maila zutenek osatua.

Emaitzak eta asistentzia oso onak izan ziren. Ikasle gehienek izan zuten %80tik gorako parte hartzea, eta, mailari zegokionez ere, gehienak oso eroso zebiltzan, bakoitza bere taldean. Horren adierazle, bi ikasle baino ez zirela taldetik atera, eta, ondorioz, bi Euskal Etxek itzuli behar izan zutela dirua.

Honela, 2005eko urtarrilaren bukaeran amaitutzat eman genuen lehenengo ikasturtea. Otsaila, Argentinan uda-parte bete-beteko opor-hilabetea izanik, 2005eko martxoan, bigarren ikasturteari ekin genion.

Oraingoan ere bi taldetan banatu genituen ikasleak. Batean, udako barnetegian mailarik baxueneko taldekoak eta maila ertaineko ikasleen artean baxuena zutenekin. Bestean, mailarik altueneko taldekoak eta maila ertaineko gainontzekoak. Uztaila bitartean 16 ikastunitate bidaltzea aurreikusi genuen eta, aurrekoan bezala, beste horrenbeste gai lantzea.

Gaiak ugariak ziren, guztiei interesatzeko modukoak (ikasleen zaletasunak ere iaz baino hobeto ezagutzen genituen), esaterako, “Ni ere bai” eta “Hau bidaia” gaiak errepasso moduan eta taldearen maila doitzeko baliatu genituen. Ez ahaztu bi talde desberdinetako ikasleak biltzen zirela hemen eta hasiera batean pixka bat kostatzen zitzaiela egoera horretara ohi-tzea. “Hau lotsa”, “Opariak”, “Apaizak eta apaizen kontuak” eta abar izan ziren beste langai batzuk.

Unitateek, aurreko urtean bezala, hiru orduko lana baino handiagoa eskatzen zieten, baina ez zuten dena zertan egin. Materiala aukeran bidaltzen genien, eta, nolabait, bakoitzak erabakitzen zuen zer egin. Kontua da, gehienetan, hizkuntz formak lantzeko ariketak aukeratzeko zitzuzela eta ez horrenbeste entzumena eta idazmena langai zitzuztenak. Horra, beraz, hurrengo ikasturteari begira konpondu beharreko kontua.

Urte horretan ahalegin handia egin genuen elkarreragina indartzen lagunduko ziguten baliabideak erabiltzen. Horrela foruma, txata, eztabaida-gunea eta MSMa erabili genituen. Esperientzia aberasgarria izan zen eta aukera berriak eskaini zizkigun. Hala ere, guk nahi baino gutxiago erabiltzen zituzten baliabide horiek, batzuk, nahiz eta irakurri, ez zirelako erantzuten ausartzen lotsak eraginda, beste batzuk internetik ez zutelako etxean, eta 5 orduko aldea ere oztupo handia zelako.

Ikasle bakoitzaren lana eta maila ebaluatzea ez zen beti oso erraza. Izan ere, batzuek komunean zituzten pasahitzak eta ezin genuen zehatz-zehatz jakin ordenagailuan jasotako jardun-erregistroak norenak ziren.

Banaka lana egiten zutenei begiratuta, errazagoa zen ikaslearen berri izatea. Hala ere, ikasle bakoitzarekin izandako hartu emanaren bidez, zalan-tzak argitzeko mezuak zirela, gairen baten inguruan izandako eztabaida zela,... nolabait sumatzen genuen nondik nora zebilen bakoitza. Benetako ebaluazio-txostena, barne-ikastaro bakoitzaren ondoren egiten genuen. Horrela iritsi ginen hurrengo urtarrilera, beraz, udako barnetegi-ra eta aurrekoan bezalaxe 3 taldetan banatu genituen ikasleak. Helburu orokor gisa mintzamena lantzea proposatu genuen, barnetegi guztietan bezalaxe, eta, horrekin batera azken hilabeteetan ikusitako edukiak birpasatu eta finkatzea.

Horrez gain, parada ezin hobea eskaintzen ziguten barnetegiak hurrengo ikasturterako eduki, gai, metodologia eta baliabideak adosteko. Barnetegiatarako gaiak eta materiala urtean zehar osatzen genituen. Hau da, unitateak prestatzerakoan, trebetasun guztiak lantzeko prestatzen genituen, “*Irakaslearen gunea*”-ren bidez landu zitezkeenekin horrela

egiten genuen eta gainerakoak (mintzamina lantzekoak, batik bat) barnetegietan erabiltzeko pilatuz joaten ginen. Horrela, mintzamenaren lan-keta testuinguruan guztiz lekutua egiten da. Izan ere, gaiak aurretik landurik izaten dituztelako, hiztegia ezaguna, eduki asko landu eta barneratuta... (ikus III. eranskina, barnetegiko txostena).

Urte osoan zehar izan zuten jarrera, aprobetxamendua eta asistentzia ezin hobeak izan ziren. Bi ikasle geratu ziren oraingoan bidean eta ondorioz bi Euskal Etxek itzuli behar izan zuten dirua.

Hurrengo ikasturteari begira eta ikas-prozesuaren eraginkortasunari begira, berriro ere taldeak berregokitu beharra ikusi genuen. Horrela, berriro ere bi taldeekin aurrea egitea erabaki genuen eta ikasle batzuk baino ez genituen taldez aldatu.

Udako oporren ondoren, 2006ko martxoan hasi zen hirugarren ikasturtea. Metodologia ordura arteko berbera zen, baina ikasleak guztiz trebatuak zeuden plataformaren erabilera eta ikasteko modu horrekin guztiz eroso sentitzen ziren. Aurten, ahalegin handia egin dugu klabe bakoitzaren atzean ikasle bakarra aritu dadin. Horrela, askoz ere errazago gertatu zaigu ikasle bakoitzaren jarraipena egitea.

Aurreko urteko bi taldeekin egin genuen aurrera, hau da, *Diaspora I* eta *Diaspora II*. Lehenengoaren abiapuntua 1B izan zen, *Maizpide*-ko 4. urratsaren pare eta, bigarrenak 1Bren bukaeratik aurrera egin zuen.

Lan-zama eta metodologia orain artekoak izan dira. Seihileko bakoitzean 16/18 unitate jaso dituzte eta beti bezala, elkarrekin alderatuta, oso desberdinak izan dira gaiak; eta edukiak, berriz, talde bakoitzaren mailari dagozkionak. Besteak beste, “Martxoak 8”, “Tbilgailu misteriotsuak”, “Maitasuna eta maitasun-gutunak” eta abar erabili ditugu.

Helburuak ere oso bestelakoak, batzuetan ikastaldiaren hasieran taldeari pulstua hartzea izan da helburu, besteetan testu-era jakin bat lantzea, gutunak esaterako, eta horrekin lotuta amodiozko gutunen lehiaketa antolatu zen “Argentinako Euskal Aste batean” eta 22 gutun baino gehiago jaso zituzten antolatzaileek. Horrek beste esanahia eman zion ikasten ari zireneri, hau da, berehalako aplikazio erreala.

Elkarreragina indartzeko, aurreko urtean erabili genituen baliabide berberak zituzten eskura eta berrikuntza txiki bat sartzen saiatu ginen, *Skype* programa erabiltzea ahozko txata bideratzeko. Zenbaiten kasuan oso zaila gertatu zitzaien instalatzea eta *Diaspora I* taldean ez genuen erabili, baina bai *Diaspora II* taldeko zenbaitekin. Dena den, uztaileko barnetegian, tresna hori nola instalatu eta erabili azaldu genien.

Ikasleen aurrerapena ebaluatzekoan, beren lanak hartu genituen kontuan. Izan ere, aurten ikaslerik gehienak pasahitz bakarraz ari dira eta lanak norberarenek dira eta ez binaka ala hirunaka egindakoak. Bakoitzaren bakarkako lanaz gain, barnetegian ere hainbat eta hainbat datu biltzen ditugu ikasleen maila ezartzeko. Azpiko taulan ikus dezakezue 2006ko uztailean ikasleek zuten maila (deiturak-eta, anonimotasunaren mesedetan, “mozorrota” egin ditugu).

### *Diaspora 1*

<b>Ikaslea</b>	<b>maila</b>
Idurre Lopez	3. urratsaren hasieran
Lierni Arriaga	3. urratsa
Amaia Arrizabalaga	3/4 urratsa
Unai Sanchez	3. urratsa
Koldo Bereziartua	3. urratsa
Jasone Bergara	3. urratsa
Esther Zabala	3/4 urratsa
Lourdes Basurto	4. urratsa
Marta Elosegi	4. urratsa
Kristina Bultz	4. urratsa
Irati Arrillaga	4. urratsa
Margarita Zubia	3/4 urratsa

### *Diaspora 2*

<b>Ikaslea</b>	<b>Maila</b>
Ihintza Lopetegi	4/5 urratsa
Maddi Sarasola	5. urratsa
Edurne Isasa	5. urratsa
Ana Bidegain	5. urratsa
Uxue Agirregomezkorta	5. urratsa
Maria Mendiguren	4/5 urratsa
Felipe Maia	4/5 urratsa
Garbiñe Iturrioz	4/5 urratsa
Ibon Aresti	6. urratsa
Izaro Goia	5. urratsa
Mari Jose Abasolo	4/5 urratsa
Agurne Perez	4/5 urratsa
Julio Montes	4/5 urratsa
Ekhiñe Goitisoló	5. urratsa
Sofia Kerejeta	4/5 urratsa
Urtzi Zubeldia	6. urratsa

Une honetan, 2006ko ikasturtea bukatzen ari gara, eta 2007ko urtarrileko barnetegiarekin emango diogu amaiera ikasturteari. 2007ko martxoan hasiko da hurrengo ikasturtea, baina, horrek sei hileko bakarra izango du. Izan ere, planaren fase honen amaiera 2007ko uztailean izango da. Orain



arteko bilakaera ikusita, *Diaspora I* taldekoak 1Bren amaiera aldera ibiliko direla aurreikusten dugu eta *Diaspora II*koak 2. mailan.

Interesgarria iruditu zait hori guztia kontatzea guk aurreikusi genituen helburuak oro lortu direlako. Hasieran beldur ginen horrelako eginkizun bati heltzeko. Eskarmentu txikia genuen, nahiz eta, maila teorikoan gero eta ezagunago izan kontua eta geure burua ere gero eta gaituago ikusi. Orain, 2006aren amaieran, hasierako erronka hura errealitate bihurtu dela esan dezakegu eta 2007ko uztaierako aurreikusten genuena dagoeneko bete dugula. Horregatik, guztiz arrakastatsutzat jotzen dut esperientzia hau eta hori bertan parte hartu duten audientzia guztiei esker.

Denak inplikatu dira proiektuan eta guztion artean egin dugu bidea, hasieran hain garbi ikusten ez genuena baina ibiliaren ibiliz zehazten joan garena. Txinara ez gara ailegatu, baina uste dut lehenengo urratsa egin dugula eta horri esker Txina zertxobait gertuago dagoelakoan nago.

### **Zer dioten irakasle/bideratzaile eta erabiltzaile batzuek**

#### **BARBAROAK!**

2003ko Gabonak. Kezka bat buruan: nola erantzungo diet Argentinan izango ditudan berrogei ikasleei? Sarean ikasi eta irakasteak dezente erakartzen nau eta aurrean dut aukera. Olentzero iritsia da gurera eta ez dit ekarri “Nondik hasi” eskulibururik.

2004ko San Sebastianak. Aurkitu dugu bidea: *Maizpide*-ko programazioa, Bakarka, AISA, Dokumentu-biltegia eta euskal webguneak izango dira oinarri. Astero eginkizun bat betetzeko eskatuko diegu, eta saio osoa hori egitera bideratuko dugu.

Hizkuntza ahalik eta naturalena izango da, testuak ahalik eta errealenak. Gaiak esanguratsuak, eta materiala ahalik eta komunikatiboenak. Ikasleek banaka lan egingo dute, nor bere etxean, modu asinkronoan; baina denek eginkizun bera jasoko dutenez, ohiko ikasgeletan izan ohi dugun elkarrenginako aukera bermatzen saiatuko gara.

Ikasgela HABEK Interneten duen “*Irakasle gunea*”-n duen taldea izango gara gu, “Diaspora” taldea.

2004ko martxoa. Lehenengo astea. Hasi da ikastaroa. Informatikaz asko ikasi eta sei asterako programazioa daukat prestatua. Gainerakoa, erantzunak jaso eta beharrak sortu ahala prestatuko dut. ERANTZUN eta ELIKATU.

2004ko martxoa. Bigarren astea. Makina bat mezu idatzi ditut, gaztelaniazko trebatze-ikastaro trinkoa ere egin dut. Gogoko tokian aldaparik ez dela eta, arian-arian, arazo guztiak gaindituta, aurrera doa ikastaroa. Ikasle hauek langileak dirudite.

2004ko maiatza. Harriturik nago! Izugarritzko taldea osatu dugu. Talde-giroa sortu eta aurrez aurrekoetan adinako elkarrengin dugu. Nork esaten zuen Hego Amerikan beste lan-erritmo bat dutela?

2004 Gabonak. Ikasle askorekin izugarritzko harremana dut. Idatzizko komunikazioak gure arteko lotura estua sortu du; ohiko

eskoletan ikasle askorekin izandakoa adinakoa bai, behintzat. Izugarri ikasi dute eta laster aurrez aurre ezagutuko ditut. Hau urduritasuna! Aurrean ditudan argazkiez oso bestelakoak ote dira? Nolako ahotsa ote dute? Nola egiten ote dute barre?

2005eko martxoa. Tira, aurrez aurrekoan ere ez dira hain gaizki moldatzen! Argentinatik bueltan ikastaro berria bideratzeko helduleku gehiago ditut. Ikastalde handia bitan banatuko dugu ikasleen mailari hobeto erantzuteko.

Lehen ere ez genuen zalantzarik, orain gutxiago: bistan da oso talde motibatua dela Argentinako ikasle hauena. Horrela errazagoa da dena.

2005eko Gabonak. Harrigarria! Aurreko urtean adina saiatu dira. Hauek ez dira nekatzen!

2006ko urtarrila. Argentinako barnetegia. Helburua: mintzamina lantzea. Barbaroa, makanudoa, espektakularra! Aldeak alde, ahozkoan ere moldatu egiten dira.

2006ko ekaina. Teknologia azkar doa, orain ahoz ere komunika gaitetzeke. Ni gogotsu nago; ikasle batzuk nekatzen hasi direla sentitzen dut, ordea.

Ez da erraza ez hitz gutxitan hiru urte hauetan izandako esperientzia aberasgarria laburtzea.

Asko izan dira arazoak: ikasleek etxean konputagailurik ez izatea, saioak deskargatzeko arazoak izatea, HABEko "Irakaslearen gune"-ko ikasgelak huts egitea, bi herrien arteko ordu eta egutegi aldeak...Baina, askoz gehiago, arazo horiei aurre egiteko emandako urratsak.

Zenbaitetan, arazoak konpontzeko komunikatu beharra izan da akuilu eta irakaslerik onena, elkarreraginerako bidea zabaldu duena, modu oso naturalean, gainera.

Zenbat mezu, zenbat gorabehera ez ote ditugun izan bidean!

Nolanahi ere, hori ez da nahikoa hiru urteko ikastaroak aurrera egiteko; beraz, esango nuke asmatu dugula programazioan gai esanguratsuak erabiltzen. Gai horiekin jarduera komunikatiboak bideratzen. Ikasleen beharretara egokitzen. Ikasleen lanak programazioan txertatzen. Ikasleei era oso pertsonal, zintzo eta hurbilean erantzuten; labur esanda, konfiantza eta talde giroa sortzen.

Eta, hain zuzen ere, horretantxe gozatu dut gehien. Materialgintza aspaldian maite nuen, oso baita sormen-lana. Diaspora-taldea kudeatzeak, ordea, sortze-lan hori beste eremu batera zabaldu dit.

Talde-lanari eta giza harremanei idatziz bakarrik eusteak besteen lekuan jartzen irakatsi dit, enpatia lantzen. Irakatsi dit hitzak neurritzen, bitan pentsatzen eta esan nahi dudana ahalik eta modu eraginkorrean esaten. Irakatsi dit gogoaren mugak pixka bat hausten. Irakatsi dit komunikazioak uste baino askoz zirrikitu gehiago dituela, uste baino askoz muga gutxiago. Irakatsi dit hamabi mila kilometrorra dagoen ikasle hori oso hurbil egon litekeela -barkatu! dagoela- pantailaren beste aldean.

Irakatsi ere irakatsi dit arriskuak badituela sareko irakaskuntzak: taldea tutorizatu eta dinamizatu beharrak *inplikazio* handia eskatzen du. Informazio asko kudeatu behar da, iturri askotatik edan, malgutasunez jokatu eta etengabe berrikuntzak bilatzeari ekin behar zaio.

Horrek guztiak ahalegin izugarria eskatzen du, etenik ez duena. Zenbaitetan, sarean harrapatua zaudelako irudipena izango duzu edo okerrago: ziurtasun osoa. Nekea eta zirrara. Beraz, saretik ihes egiten ere ikasi beharko duzu. Nik, kostata, baina hori ere ikasi dut.

Horregatik guztiagatik, sareak aipatzen hasita, hau irakurtzen ari zaren horri, oraindik hasi ez bazara, usoak pasa arte zain egon gabe, sarea hedatzen hasteko gomendatuko nizuke. Urrunekoak hurbileko bihur ditzakeen sarea dugu eskuetan. Edonon eta edonoz elkar gaitzakeena. Utzi itzazu une batez gelako lau horma goxoak eta sartu sarean, zurrunbiloan eramango zaitu-eta bide berrietan barrena. Merezi du eta bilatu aukera!

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuet lagun, irakasle eta ikasle izan zaituztedan diasporako guztioi. Zuek bai merezi duzuela! Zuek izan zarete irakasle bizitzan izan dudana esperientziarik polit eta aberasgarriena. BARBAROAK zarete!

#### *Elba Mocoeroa:*

El aprendizaje del Euskera a través del Remoto me parece una excelente opción para los que desde la Diáspora queremos aprender la lengua vasca y no contamos con profesores en nuestros Centros Vascos. Es una excelente oportunidad para la formación de profesores de Euskera que luego, in situ, se convertirán en formadores y multiplicadores.

Con muy buenas estrategias pedagógicas, excelente manejo didáctico, recursos humanos apropiados, e interesante material hacen ágil el aprendizaje de la lengua.

Quiero destacar la importancia que tiene la inclusión de artículos de Historia, de Poesía y de textos de circulación social, que introducen al alumno en el mundo de la cultura y de las tradiciones.

Hace dos años, cuando comenzó el remoto, mi desconocimiento del Euskera era total.

Y hoy, aún a sabiendas que el camino por recorrer es largo, me siento muy conforme con los logros obtenidos y con las competencias lingüísticas desarrolladas.

Quiero destacar la presencia de Jon. Su trabajo siempre aporta el apoyo necesario y pone en evidencia que a ambos lados de la pantalla existe un ser humano.

#### *M. A. Dadet:*

Kaixo! Creo haber entendido que con Kinku escribirán un artículo y nos invitan a dar nuestras apreciaciones. Por ahora sólo puedo en castellano.

Este sistema de enseñanza tiene una ventaja única e insustituible y es permitir que podamos acceder al estudio del Euskera las personas que estamos geográficamente a kilómetros de distancia de los centros de enseñanza.

Planteado así parece que la opción ésta o nada implicaría una suerte de indulgencia sobre el método. No lo creo necesario. Los temas elegidos cada semana son atrapantes y están presentados con criterio didáctico (a mi juicio un poco largos) y la calidez de nuestro profesor aliviana la frialdad de estar frente a un monitor.

El método ofrece recursos que los alumnos no estamos utilizando o lo hacemos muy poco: Foro, chat, estabaida etc. En mi caso es una mezcla de dificultad con la escritura, temor a equivocarme y falta de tiempo. Los dos encuentros anuales en barnetegis son insuficientes para los que no tenemos clases presenciales ni compañeros con los que compartir. Encuentros regionales cada dos ó tres meses ó la presencia de un profesor sería un invalorable apoyo.

En términos generales estoy muy conforme, no sé Uds.

Ibon Aresti

“Orain dela bi urte erremotoaren bidez euskara ikasten dut eta egian esan, oso gustura nago.

Astean behin irakasleak saio berri bat lantzeko ematen digu eta guk lana bukatzean hari bidaltzen diogu berak zuzentzeko.

Ni hasi nintzenean pixka bat galduta nengoen, inoiz ez nuen horrelako ikastarorik hartu eta. Hala ere, egunez egun gehiago dakidala konturatzen naiz eta horrek benetan pozten nau.

Gainera erremotoan ez nago bakarrik, ikaskide asko dauzkat eta ia egunero foroan elkartzen gara berriak kontatzera, noski euskaraz egiten dugu eta nire ustez, era horrek garrantzi handia dauka gure euskararen garapenarako.

Euskara maite dugunontzat aukera hau edukitzea berezia baino gehiago da, horregatik eskerrak eman nahi dizkiet Buenos Airesetik, Joni eta erromotoan ikasteko aukera eman digutenei.

Agur eta izan ongi!

Segidan, hainbat idazki eta txosten eskainiko ditugu egitasmoaren goi-barrenak sakonagotik ezagutzeko.

## I. Eranskina:

### DIASPORA 1

1- A maila. 1.go sehilabetekoa:

Astero hiru bat orduko edo gehiagoko lana aginduko diegu. Hasiera-hasieratik hasiko gara. Astero idatziz egindako lan bat igorri beharko diote irakasleari. Horretara bideratuak izango dira asteko jarduerak.

Euskal Herrian horrela egiten ez badugu ere, urruntasuna eta ikasleari sinkronikoki erantzuteko aukerarik ez dugula kontuan izanda, hasieran behintzat, ez dugu testu errealik erabiliko, baina saiatuko gara ahalik eta errealenak izan daitezen.

#### Metodologia:

- 1 Astero agindutakoa egiteko hamabost eguneko epea izango dute. Ondoren, materiala eskura izango badute ere, ez diegu zuzenketarik egingo.
- 2 Ahalik eta jarduera komunikatiboan egiten saiatuko gara. Hasieran zaila da, baina aurrera joan ahala horretara bideratuko ditugu.
- 3 Aukera den heinean material errealak erabiliko ditugu: haurrentzat eginak diren joko interaktiboak ( *clic*  programa, haurrentzako ipuinak, web orri euskaldunak etab.)
- 4 Ikasitakoak nolabait indartzeko eta eduki berrietara egokitzen joateko, nobela antzeko bat idatziko diegu 5. saiotik aurrera.
- 5 Entzumena ere landuko dugu, poliki-poliki ohitzen joan daitezen eta gu nolabait hurbiltzeko (esaterako, lehenengo ikasgaiak, irakasleak bere aurkezpena egin du).
- 6 Euskal kulturaren berri emango diegu, normalean asko gustatzen zaie-eta. Argentinako kontuak ere erabiliko ditugu, egin beharrekoak hurbilagokoak gerta dakizkien.

Hemendik uztaiera bitarteko 16-18 asteak horrela egingo ditugu gutxi gorabehera:

GAIA	HELBURUA	EDUKIA
1 Nor naiz ni?	Nork bere buruaren aurkezpena	Izan aditza singularra Nor, zer, Non, nongoa, DAGO Lanbideak Agurrak
2 Nire ikasleak	Aurkezpenak egiten trebatu eta nork bere burua deskribatzea	Izan aditza osorik Nor plurala nolakoa
3 Nire familia	Nork bere familia deskribatzea	Nor-nork Zenbakiak Adjektiboak
4 Zer nahi duzu?	Zerbait eskatzeko edo erosteko oinarritzokoenan trebatzea	Nahi, balio, behar Agintera Hiri eta herrietako leku izenak ikasi. Orain artekoaren erreposoa
5 Hau eguna!	Egunean zehar zer egin duten kontatzea. Orduak ikastea.	Burutua orduak

	<i>Gaia</i>	<i>Helburua</i>	<i>Edukia</i>
6	Eskutitza	Eskutitza idaztea, gertatutakoaren berri emanez.	Burutua Noren/norena Nola
7	Zer egiten dut?	Asteaz zehar zer egiten duten kontatu eta ohituren berri ematea	Ohiturazkoa Astea, hilabeteak, urtaroak Euskal Herriko festa egunak
8	Zergatik ikasten duzu euskara?	Ohituren berri ematea	Ohiturazkoa Nola. Euskal inauteriak Kausalak
9	Eta bihar	Asteburuan zer egingo duten kontatzea	Etorkizuna Nondik nora
10	Hori bidaia!	Argentina ezagutzeko bidaia baten berri ematea	Etorkizuna Zertara, zergatik
11	Nire zaletasunak	Nork bere zaletasunen berri eman	Nor-nori TZEA/TEA
12	Bai goxoa!	Jateko ohituren berri eman Errezetak eman	Janariaren inguruko hiztegia
13	Dendaz denda	Arropa dendetan zerbaite eskatzeko edo erosteko oinarrikoenean trebatzea	Gaiaren inguruko hiztegia Aditz lokuzioak: behar, nahi, balio...
14	Hau buruko mina	Nork bere osasunaren berri ematea Instrukzioak ematea: sendatzeko zer egin behar den, esaterako.	Agintera Zertarako(TZEKO) Hiztegia: gorputza, gaixotasunak etab.
15	Kontatu ipuina, aita!	Ipuin labur bat kontatzen trebatzea Biografia txikiak ulertu eta sortzea	Lehenaldia Zertarako jarraitu Denborazkoak (e)NEAN...
16	Txikitan	Txikitan zer zaletasun eta ohitura zuten kontatzea	Lehenaldia Norekin, noren...
17	Hau teknologia!	Azalpen testutxo bat sortzea. Norbait zertan ari den azaltzea.	Zertan ari Baldintza(nahi baduzu...)
18	Kirolariak gara gu	Kirolen inguruko ohitura eta zaletasunak azaltzea Instrukzioa: prestaketak nola?	Baldintza(nahi baduzu) Nor-nori-nork

## 2. sehilabetekoa:

### A taldea. Hasierakoa

Hauek 6. saiotik aurrera hasteko asmoa zuten. Dagoeneko bidali dizkiet jarduera batzuk eta seigarren saioa. Orain arte osatutako saioak segidakoak dira, baina, agian, pixka bat aldatu edo moztuko ditut, aurretik ibili direnek dena ez errepikatzeke eta egutegian sartu ahal izateko.

- Idurre Lopez
- Kristina Bultz Mora
- Lierni Arriaga
- Margarita Zubia
- María Julia Ríos
- Unai Sanchez
- Amaia Arrizabalaga

	GAIA	HELBURUA	EDUKIA
6	Eskutitza	Eskutitza idaztea, gertatutakoaren berri emanez.	Burutua Noren/norena Nola
7	Zer egiten dut?	Asteaz zehar zer egiten duten kontatu eta ohituren berri ematea	Ohiturazkoa Astea, hilabeteak, urtaroak Euskal Herriko festa egunak
8	Zergatik ikasten duzu	Ohituren berri ematea euskara?	Ohiturazkoa Nola. Euskal inauteriak Kausalak
9	Eta bihar	Asteburuan zer egingo duten kontatzea	Etorkizuna Nondik nora
10	Ezagutu Goierri	Argentina ezagutzeko bidaia baten berri ematea	Etorkizuna Zertara, zergatik
11	Errepasoa	Aurreko guztien errepasoa	ENTZUMEN EBALUAKETA-TXO BAT EGIN DIEGU
12	Zer gustatzen zaizu	Nork bere zaletasunak azaltzen ikastea	Nor-nori TZEA nominalizazioa
13	Gustuak	Zaletasunei buruzko testuak ulertzea: Zubi-saltoa, surfa	
14	Biografiak	Zenbait pertsona argentinar ezagunen biografiak ulertzea eta idaztea	Lehenaldia: Nor eta nor-nork.
15	ipuinak	Ipuin labur bat ulertzen, eta idatziz kontatzen trebatzea Txikitako zaletasunen inguruan mintzatzeta.	Lehenaldia Zertarako Denborazkoak (e)NEAN, ondoren...
	Gabonak	Errepasoa eta gabonen inguruan iritzia ematea	Ohiturazkoa eta euskal herriko ohiturak

### B taldea. Ertaina

Aurrekoa errepasatuz hasiko gara, 10. saiotik. Beraz, edukietan lehenengo urratsa bukatuko dute. Baina, ulermenari dagokionez, idatzizkoan batez ere, maila handiagoa beharko dute. Orain arte osatutako saioak segidakoak dira, baina, agian, pixka bat aldatu edo moztuko ditut, aurretik ibili direnek dena ez errepikatzeko.

- Koldo Bereziartua
- Paola Arriola
- José Boccardo
- Estella Arrizabala
- M<sup>a</sup> Lourdes Basurko
- M<sup>a</sup> Natalia Hormazabal
- Agurne Pérez
- Jasone Bergara
- Julio Montes

	GAIA	HELBURUA	EDUKIA
10	Ezagutu Goierri	Argentina ezagutzeko bidaia baten berri ematea	Etorkizuna Zertara, zergatik
11	Zer gustatzen zaizu	Nork bere zaletasunak azaltzen ikastea	Nor-nori TZEA nominalizazioa
12	Gustuak	Zaletasunei buruzko testuak ulertzea: Zubi-saltoa, surfa	
13	Biografiak	Zenbait pertsona argentinar ezagunen biografiak ulertzea eta idaztea	Lehenaldia: Nor eta nor-nork.
14	ipuinak	Ipuin labur bat ulertzen, eta idatziz kontatzen trebatzea Txikitako zaletasunen inguruan mintzatzeta.	Lehenaldia Zertarako Denborazkoak (e)NEAN, ondoren...
15	Osasuna	Gorputz atalak eta gaixotasunak ezagutzeta. Aurrekoak errepasatzea Gaiaren inguruko elkarrizketa bat asmatzea	Hiztegia zertarako
16	Sukaldean	Norbait zertan ari den azaltzea. Sukaldearen inguruko hiztegia ezagutzeta. Ekintza sekuentzia bat idatziz ematen trebatzea.	Zertan ari Baldintza(nahi baduzu...) Denborazkoak
17	Eskolan	Norbere eskola nolakoa zen azaltzea. Oharrak ulertu eta idaztea. Irratiko benetako elkarrizketa bat ulertzea	Lehenaldia Oharren ezaugarriak
18	Opariak	Oparien eta jostailuen inguruko hiztegia. Jostailuen deskribapenak. Eztabaidak osatzea. Ipuina osatzea. Elkarrizketa bat ulertzea	Nor-nori-nork
19	Berriak, berriak	Elkarrizketa osatu. Berri motz eta errazak ulertzeko trebatzea Berri bat idaztea	Errepasoa (aditza eta deklinabidea) Berriak nola idatzi
20	Ebaluaketa	Ikasleek ebaluaketa egin eta emaitzaren berri irakasleari eman	
	Gabonak	Gabonen inguruko ohituren berri izatea. Gabonen inguruko hiztegia. Gabonen inguruan iritzia ematea.	Errepasoa (3 taldeei saio bera bidaliko diet)

### *C taldea. Aurreratua*

Aurreko saioekin jarraituko dugu, baina, zuek hala eskatuta, abiadura motelxeagoan.

- Ihintza Lopetegui
- M<sup>a</sup> Maddi Sarasola
- Edurne Isasa



- M<sup>a</sup> Ana Bidegain
- M<sup>a</sup> Uxue Agirregomezkorta
- Maria Mendiguren
- Dario Rodriguez
- Garbine Iturrioz
- Ibon Aresti
- María de los Angeles Garcia
- Maria de las Mercedes dos Santos

	GAIA	HELBURUA	EDUKIA
17	Sukaldean	Norbait zertan ari den azaltzea. Sukaldearen inguruko hiztegia ezagutzea. Ekintza sekuentzia bat idatziz ematen trebatzea.	Zertan ari Baldintza (nahi baduzu...) Denborazkoak
18	Opariak	Oparien eta jostailuen inguruko hiztegia. Jostailuen deskribapenak. Eztabaidak osatzea. Ipuina osatzea. Elkarrizketa bat ulertzea	Nor-nori-nork
19	Berriak, berriak	Elkarrizketa osatu. Berri motz eta errazak ulertzeko trebatzea Berri bat idaztea	Errepasoa (aditza eta deklinabi-dea) Berriak nola idatzi
20	Ebaluaketa	Ikasleek ebaluaketa egin eta emaitzaren berri irakasleari eman	
21	Lotsa	Iraganeko gertakizun baten berri ematea. Zerbaiten inguruko iritzia ematea. Aholkuak ematea.	Baldintza Aditza iraganean
22	Prensa arrosa	Gustuak adieraztea Gaiaren inguruko berri motz bat idaztea. Testu motakoa ez den elementua aurkitzen trebatzea	Jakin trinkoa orain aldian Norentzat
23	Bidaiak	Narrazio baten orden kronologikoa lantzea. Balizko bidaia baten berri jaso eta berri eman. Sekuentzia txiki bat idaztea.	Denborazkoak: takoan, eta gero, aurretik, baino lehen, ondoren, ...-(e)nean
24	Gaia oraindik ez dut pentsatu	Entzundako nahi irakurritako gauza bat birkontatzea. Beste batek esandakoak ulertzea	Konpletiboak- ELA berriak
25	Gaia oraindik ez dut pentsatu	Elkarrizketak ulertzea. Elkarrizketa motzak asmatzea.	Zehar galderak Tzeko aginduzkoak
	Gabonak	Gabonen inguruko ohituren berri izatea. Gabonen inguruko hiztegia. Gabonen inguruan iritzia ematea.	Errepasoa (3 taldeei saio bera bidaliko diet)

Hau guztia egiteko aurretik Maizpiden bertan nahiz beste euskaltegi batzuetan erabilitako materiala aukeratu dugu. Aisa material berria ere dezente aztertu dugu, berrienetakoa horixe da eta.

*Bakarka* Iera ere askotan jo dugu; izan ere, nor bere kasa ikasteko metodoa da. Horrek ez du esan nahi, ordea, taldeko komunikazioa sustatzen saiatuko ez garenik. Oraingoan, bederatzia saio ditugu prestatuak. Ondorengoak taldearen jarraipena ikusi ahala osatuko ditugu, arian-arian.

**II. Eranskina:** Bakarkako lanaren balorazioa.

ON-LINE IKASTAROAREN MEMORIA (Uzt. 05)

DIASPORA 1 TALDEA

TALDEAREN EGOERA

Mailaren aldetik, oro har, oso ondo ikusten ditut. Nahiko zuzenak eta adierazgarriak dira. Batzuek oraindik gabeziak dituzte eta sortzea kosta egiten zaie, baina normala da zein mailatan dauden kontuan hartuta.

Ikastaroaren jarraipena oso zuzena izan da. Nik uste dut ikasleek ondo lan egin dutela eta egin beharreko jarduerak, oro har, egin dituzte.

Hala ere, foroa eta eztabaida nik nahi baino gutxiago erabili dituzte. Egia esateko, ikasle hauek iaz ere ez zituzten asko erabiltzen, baina hurrengoetarako hori hobetzen saiatu behar dugula uste dut.

Foroak elkarreraginean ibiltzeko aukera ematen digu eta, nire ustez, oso aberasagarria da, lana komunikati-boagoa bihurtzen baita. Beraz, horretan gehiago saiatuko naiz abuztutik aurrera.

EGUTEGIA

Martxoan hasi ginen lanean. Neguko barnetegiaren aurretik 16 saio egingo ditugu.

Saioek aurreko urtean bezala hiru orduko lana baino gehiago eskatzen diete, baina ez dute dena zertan eginik. Nik ikasleei, haien ikas-estiloari jarraikiz, materiala aukeran jarri nahi izan diet. Jakina, gehienek gramatikalenak aukeratu dituzte, baina denboraren poderioz hori ere aldatuko da, edota aldatu beharko dugu.

EDUKIAK ETA PROGRAMA

*Martxotik uztaileira bitartekoa*

Barnetegian bi taldetan ibilitakoak elkartu ditugunez, zenbait saio errepororako eta taldea berrantolatzeko erabiliko ditugu. Gure asmoa uztailearako garai bateko 2. urratsaren bukaera aldera inguratzea izango da. Hau da, 1B mailaren bi herenak edo eginak izatea.

Uztaileko barnetegiaren aurretik 16 saio egitea aurreikusitako dugu.

Nire ustez, taldea ondo egokitu da eta goitik etorri direnak ondo moldatu dira. Behetik datozenei ahalegin handixeagoa eskatu die, baina ondo ari dira eta erritmoari eusteko gaitasuna badute.

Metodologia aldetik, iazko bideari eutsi diogu eta MSNa erabiliz ikasleengandik hurbilago egoten saiatu gara. Dena den, DIASPORA 1ekoak gutxi agertu dira.

	GAIA	HELBURUA	EDUKIA
1	Ni ere bai	Euskararen aldeko festa baten berri izan. Elkarrizketa bat osatu. Gutun bat osatu Taldea abian jarri. Kronikatxo bat idatzi	Erreporoa: aditzak, kausalak...

	<i>Gaia</i>	<i>Helburua</i>	<i>Edukia</i>
2	Hau da bidaia!	Bidaia baten kronikatxo idatzi. Idatzizko nahiz entzutezko kronikak ulertzea.	Errepasoa eta denborazkoak: baino lehen, eta gero...
3	Kirola eta kirolariak	Bi kirol eta bi kirolari gipuzkoar ezagutzea. Kirolaren inguruko hiztegia ezagutzea. Foroan zaletasunei buruz idaztea.	Baldintza Helburukoak: zertarako Denborazkoak
4	Ipuinak	Ipuin irakurriak nahiz idatzia ulertu eta osatzea. Forora iritzi bat bidaltzea Mafaldaren tira bat euskaraz idaztea.	Denborazkoak Nominalizazioak: TZEKO, TZEA Baldintzak
5	Hau lotsa!	Ahozko nahiz idatzizko zenbait pasadizo ulertzea. Lotsa pasa duten momentu bat idaztea. Lotsa ez pasatzeko aholkuak ematea.	Lehenaldia Gomendioak: agintera, nominalizazioa...
6	Opariak	Elkarrizketak osatzea. Jostailuen inguruko testuak irakurri nahiz entzutea eta ulertzea. Nork bere gustuak azaltzea. Nobela baten atala irakurtzea.	Nor-nori-nork orainaldian
7	Apaizak eta apaizen kontuak	<a href="http://www.eitb24.com">http://www.eitb24.com</a> orra ezagutu. Batez ere “bitxikeriak” atala. Apaizen inguruko txiste, esames, istorioak irakurri, entzun eta ulertzea. Testuak eta ipuinak osatzea. Pasadizo edo txiste bat idaztea. Nobela baten atala irakurtzea.	Nor-nori-nork Atzizkiak (egileak) Errepasoa: deklinabidea eta zertan ari.
8	Berriak, berriak, berriak	Berrien ezaugarriak ezagutu. Berriak irakurri eta entzutea. Berri bat idatzi. Nobela baten atala irakurtzea.	Berrietako aditz denbora. Galdekatzaileak: Zer, nork, noiz, non...
9	Hauek berriak!	Berri arrosak ulertzea (ahoz eta idatziz) Berri batean okerrak zuzentzea Berri arrosa idaztea. Nobela baten atala irakurtzea.	Jakin trinkoa ZERTAN nominalizazioa(tzen) NORENTZAT
10	Zer berri? Zer lan?	Zein lanbidez ari garen asmatzea. Lan egiteko arazoak ulertzea. Lanen arriskuez ohartaraztea. Foroan lanaz nork bere iritzia ematea. Langile batzuek diotena errepikatzea, ELA erabiliz. Zergatik eta nola lan egiten duten kontatzea. Nobela baten atala irakurtzea.	Konpletiboak: ELA

	<i>Gaia</i>	<i>Helburua</i>	<i>Edukia</i>
11	Etorokinak	Emigranteen testimonioak osatu eta ulertzea (entzutezkoak nahiz idatzizkoak) Elkarrizketa bat osatzea. Arbasoen nondik norakoak idaztea. Iritzia azaltzea: nolakoak gara euskaldunak? Abestia entzun eta ulertzea Nobela baten atala irakurtzea	Konpletiboak Lehenaldia Kausalak Baldintza
12	Iragarkiak	Idatzizko nahiz entzutezko iragarkiak ulertzea eta osatzea. Iragarki bati buruzko azalpena ulertzea. Iragarki bati buruzko azalpena idatziz ematea. Nobela baten atala irakurtzea	Ikasleek horrela eskatuta erreparatua: Konpletiboak, nor-nori-nork, norentzat. Noiztik noiz arte Orduak
13	Barnetegian (maitasun kontuak)	Asmoak eta helburuak adierazten trebatzea. Aholkuak ematen trebatzea. Besteek esaten dutena errepikatzen trebatzea. Idatzizko nahiz entzutezko testuak ulertzea. Nobela baten atala irakurtzea	Zehar galdera Elkarrizketarako baliabideak zertarako
14	Medikuak eta mirariak	Medikuntzaren inguruko testu eta pasadizo atseginak ulertzea. Zenbait berri zientifiko irakurri eta ulertzea. Foroan kasu jakin baten gaineko iritzia azaltzea. Aurreikustearen balioaz jabetzea. Nobela baten atala irakurtzea	Zehar galdera Konpletiboak Kausalak Lehenaldia Deklinabidea
15	Haur prodigioak	Egunkariko testu erreal-errealak irakurtzen hastea. Entzungai errealetara inguratzea. Foroan txikitako esperientziak kontatu eta prodigioen inguruko iritzia azaldu. Nobela baten atala irakurtzea	Baldintza eta lehenaldia
16	Paranara goaz	Aurreko guztiak erreparatzea eta barnetegira bideratzea. Herri baten deskribapena	Aurreko guztiak

### *Ikasleen jarraipena*

Irakasleak *Ohar-taulan* jarritako mezuak denek irakurtzen dituzte. Agindutako lanak egiten dituzten baloratzea oso zaila da, baina mezuetan galdetutako zalantzen bidez, forora bidalitako ideien bidez zerbait susma daiteke. Balorazio hau egiteko garaian, saio bakoitzean irakasleari nahiz foroari igorri behar zioten lana izango dut kontuan, batik bat.

<b>Izena</b>	<b>Asistentzia</b>	<b>Maila</b>
Idurre Lopez	%100, lan guztiak zintzo bidali ditu, forora gutxi agertu da. Lanak oso erregular eta zintzo bete ditu.	Lautarorekin batera egin ditu lanak eta baloratzea zaila da. Dena den, oso zuzen eta egoki aritu dira. Testuak produzitze-ko garaian, ez dute asko idatzi baina ondo ari dira.
Lucia Maturana	%80, hasieran pixka bat kostatzen zuten, baina geroztik oso ondo ari da. Oso erregular.	Oso maila ona eman du. Oso zuzena da ariketa analitikoak egiteko garaian. Azken saioetan testu onak sortu ditu.
Amaia Arrizabalaga	%90, oso erregular, foroan ez du parte hartu.	Maila justua da, kostatzen zuten. Barnetegian ere aste bete bakarrik egin zuen eta nabari zaio. Komunikatzeko gabezia handiak ditu. Dena den, aurreratu ari da.
Margarita Zubia	%100, oso lan erregularra egin du, foroan parte hartu du eta txatean ere maiz agertu da.	Ondo, eta bere aurrerapena ikaragarria izan da, ikaragarria. Oso zuzena da ariketak egiteko garaian. Testuak ere egoki sortzen ditu eta txatean komunikatzea lortu du. Oso gustura nago lortu duenarekin.
Julia Rios	%70, saioak ez ditu erritmoan egin, baina gehienak bidali ditu. Foroan ez da agertu.	Ondo, ez dakit asko aurreratu duen. Aurretik maila polita duela iruditzen zait. Sortze lan gutxi egin du. Dena den, iaz baino askoz hobeto ari da. Inguruko laguntza duela iruditzen zait eta hori ona da.
Unai Sanchez	%100, oso erregularra. Foroan gutxi agertu da.	Ondo, ondo lan egin du. Maila baxua du oraindik eta horren ondorioz bere sortze lanak nahiko txarrak dira, baina oso saiatua da eta beti aurrera egiten saiatzen da. Adibidez, behin saio bat berbidali zidan. Oraindik komunikatzeko gabezia handiak ditu.
Koldo Bereziartua	%50, ez da oso erregularra, baina hori ari da. Hastea kostatzen zuten, orain hobeto ari da. Foroan inoiz edo behin agertu da.	Hainbestean moldatzen da. Edukiak ez ditu barneratuak eta komunikaziorako tresnak ere ez ditu behar bezain ondo erabiltzen. Batzuetan baleko lanak egiten ditu, besteetan berriz nahiko desagokiak. Ez da ebaluatzen erraza.
Jasone Bergara	% 80, nahiko sistematikoak dira, foroan ia ez dira agertu.	Hiru lagunek batera bidaltzen didate lana eta neurtzea zaila da. Ariketak ondo egiten dituzte eta sortze lanetan orain hasieran baino hobeto ari dira. Lan batzuk oso onak izan dira, besteak ez hainbeste. Gainera, hiru ikasleen artean aldea dagoela uste dut, baina zaila gertatzen zait baloratzea.

<i>Izena</i>	<i>Asistentzia</i>	<i>Maila</i>
Esther Zabala	%85, oso ona, azken saioak falta zaizkio, baina ziur naiz bidaliko dituela oso erregularra da eta. Foroan ez da agertu.	Oso ondo. Nabari zaio hizkuntza-irakaslea dela. Oso zuzena da, oso. Sortze lanetan ere asko hobetu du eta tresna horiek ondo ezagutzen dituenek, azken aldera lan bikainak egin ditu. Zenbaitetan azkarregi goazela esan izan dit, baina berak prozesuari ondo jarraitzen dio.
Lourdes Basurko	%90, hasieran pixka bat kosta zitzaion, baina gero oso erregularra izan da. Foroan ere parte hartu du. Bere taldeko aktiboenetakoa izan da.	Ondo, nire ustez hobetzen ari da. Edukiak lehendik ere ezagutzen zituen, baina gauzak nahastu egiten zituen eta atzera-aurre asko zeuden bere produktioetan. Orain, zuzen eta txukunagoak egiten ditu. Ondo! Oso saiatua da. Zuzenxeago balitz, DIASPORA 2n ere egon zitekeen.
Marta Elozegi	%95, zenbait arazo tekniko izan dituzte, baina MSN bidez komunikazioa ez etetea lortu dugu.	Oso ondo. Sortze lan gehienak oso onak izan dira. Gaitasun handia du. Primeran!

## *DIASPORA 2 TALDEA*

### *TALDEAREN EGOERA*

Ikasleen maila alde batera utzita, aprobetxamenduari dagokionez, talde honek ondo funtzionatu du, nahiz eta bi talde desberdinetako ikasleak batean elkartzea hasieran pixka bat kostatu.

Barnetegian talde ertainean izan zirenei –Paolari, Joséri, Anjelari, Natiri- eta Rociori ere, nahiz eta bera barnetegian ez izan–, kosta egin zaie taldera egokitzea. Eta aurretik taldean zeuden batzuei ere erritmoa jaitsi egin dugula iruditu zaie.

Nolanahi ere, nahiko era kohesionatuan aritu dira eta elkarreragina ona izan da. Denei gertatu zaie baliagarri ikasi eta ikusi duguna, eskaintzen dieran materialaren zabaltasunak, luzerak edo... aukeratu ahal izatea bermatzen baitie.

Talde honetan foroak eta eztabaidak ondo funtzionatu dute eta nirekin ere askotan txateatu dute batzuek. Ikasle batzuk nahiko autonomoak dira eta beren kasa sortzen dute hizpidea, lana...

Nire ustez oso ondo lan egiten ari da. Ni gustura nago.

### *EGUTEGIA*

Martxoan hasita uztaileko barnetegiaren aurretik 16 saioa egingo ditugu.

### *EDUKIAK ETA PROGRAMA*

*Martxotik uztaileira bitartekoa*

#### *Metodologia*

Iazko metodologiari eutsi diogu. Mintzamina lantzen saiatu naiz, lehenik *Skype* programa erabiliz, baina ikasleentzat zaila da hori instalatzea. Gero, mintzamenerako bikoteak sortu ditut rolak, gaiak etab... emanda,

beraiek hitz egin zezaten. Gutxi egin dute hori, baina egin dutenak oso gustura aritu dira. Nire helburua haiek pixka bat elkartu eta autonomoagoak izatea zen, eta zerbait lortu dugu.

Gainera, Diaspora 1 taldean bezalaxe, aurten MSN bidez txateatzeko aukera izan dute eta gure arteko harreman estuagoa eta zuzenagoa lortu dugu. Bospasei lagunekin askotan elkartu naiz.

### Programa

Barnetegian bi taldetan ibilitakoak elkartu ditugunez, zenbait saio erreparorako eta taldea berrantolatzeke erabiliko ditugu. Gure asmoa uztaileko garai bateko 3. urratsaren bukaera aldera inguratzea izango da. Hau da, 1-A mailara iristea.

	GAIA	HELBURUA	EDUKIA
1	Ni ere bai	Euskararen aldeko festa baten berri izan. Elkarrizketa bat osatu. Gutun bat osatu Taldea abian jarri. Kronikatxo bat idatzi	Errepaso: aditzak, kausalak...
2	Haur prodigioak	Egunkariko testu erreal-errealak irakurtzen hastea. Entzungai errealetara inguratzea. Foroan txikitako esperientziak kontatu eta prodigioen inguruko iritzia azaldu.	Baldintza eta lehenaldia
3	Sukaldean	Errezetak irakurtzea Errezetak osatzea. Elkarrizketa bat osatzea. Entzundako errezetari buruzko galderak erantzutea. Euskal Herriko produktu batzuk ezagutztea. Errezeta bat idaztea.	Zertarako  Agintera (kasu batzuk NOR eta NOR-NORK) Denborazkoak
4	Auto-eskolan	Elkarrizketa bat osatzea. Trafiko seinaleak zertarako diren adieraztea. Testu idatzi batean soberan dauden bi lerrokadak detektatzea. Testimonio bat irakurri eta antzeko bat bidali forora, nork berea. Gurpila nola aldatu entzunez ikastea. Argentinan azterketa nolako den idatzi.	...ELA eta T(Z)EKO erreparatuko ditugu. Gainera, aurreko saiotako egiturak, denborazkoak, kausalak, baldintzak...ere bai.
5	Etxea	Etxearen inguruko testuak (idatziak nahiz ahozkoak) ulertzea. Etxea erosteko eta etxean gogoan izan beharreko aholkuak ematea. Forora etxeei buruzko iritzia ematea. Nork bere etxea deskribatzea.	Aurreko guztiak eta ZEHAR galderak, batez ere.

	<i>Gaia</i>	<i>Helburua</i>	<i>Edukia</i>
6	Ohiturak, obsesioak, fobiak eta maniak	Pertsona ezagunak eta maniak lotzea. Obsesioei buruzko azalpen testua ulertzea. Zenbait berri bitxi irakurtzea. Entzundakoa berridaztea. Entzundakoa detektatzea Nork bere fobiak idatziz azaltzea. Nobela baten atala irakurtzea.	Aurreko guztiak eta, batez ere, Nor-nori-nork aditza.
7	Txikitako zaletasunak, kirola eta kirolariak.	Elkarrizketa osatzea. Testua osatzea. Txikitako zaletasunei buruzko kontaketa –idatzizkoa nahiz entuztezkoa– ulertzea. Bi entzungai erreal ulertzea. Entzundakoaren inguruan foroan iritzia ematea. Txikitako zaletasunei buruz idaztea. Nobela baten atala irakurtzea.	Nor-nori lehenaldian Kausalak
8	Musika, musikariak eta berriak	Musikaren inguruko berriak-idatzizkoak nahiz entzutezkoak-ulertzea. Musikaren inguruko iritzia ematea. Argentinako musikaren berri idatziz ematea. Nobela baten atala irakurtzea.	Nor-nori-nork lehenaldian
9	Lapurrak (zuriak eta beltzak)	Idatzizko bi berri nahasi diskriminatzea. Gaiaren inguruko berriak irakurtzea. Entzutezko aholkuak ulertzea. Entzutezko ipuin bat irakurtzea. Gutun bati idatziz erantzutea. Argentinako kasuren bat idatziz kontatzea. Nobela baten atala irakurtzea.	Nor-nori-nork lehenaldian Zenbait egitura errepasatuko ditugu: agintera, nahiz eta/arren, kausalak, lekuzko adberbioak
10	Haurren jolasak eta txikitako jolasak	Elkarrizketak ordenatzea. Idatzizko nahiz entzutezko testuak ulertu eta osatzea. Entzutezko testimonio bat ulertzea. Txikitako ohiturak idatziz kontatzea. Foroan joko batean nola jolasten den azaltzea. Nobela baten atala irakurtzea.	Aditz lokuzioak
11	Zuregatik balea bat hilko nuke txankletazoka!	Piropoak osatzea. Harridurazko esaldietan trebatzea. Istorio bati amaiera eman eta forora bidaltzea. Maitasunezko gutun bati idatziz erantzutea. Entzundakoa irudiekin lotzea. Kantua osatzea. Entzundako txiste bat idatziz birkontatzea. Langile baten eguna idatziz kontatzea. Nobela baten atala irakurtzea.	Aurreko guztiak Harridurazkoak Esamoldeak



	<i>Gaia</i>	<i>Helburua</i>	<i>Edukia</i>
12	Loreak	Loreak eta definizioak lotzea. Definizioak ematea Testu idatzi batean erlatiboazko esaldiak lokalizatzea. Gaiaren inguruko testuak ulertzea (ahozkoak nahiz entzutezkoak) Istoria amaitu eta lana forora bidaltzea. Istoria bat elkarrizketarik gabe kontatzea. Nobela baten atala irakurtzea.	Erlatiboa  Konpletiboa eta zehar galderak
13	Kasu bitxiak	Entzutezko istorio bati buruzko hipotesiak forora bidaltzea. Zenbait kasu bitxiren berri izatea. Iritzia ematea eta idatziz kasu bitxien berri ematea. Nobela baten atala irakurtzea.	Erlatibo erreferente gabea  Harriurazkoak
14	Maitasuna	Gaiaren inguruko testuak ulertzea Abesti baten hitzak ulertzea. Lehengo zitarako ahokuak ematea. Nobela baten atala irakurtzea.	Nor-nork osoa orain aldian
15	Loa	Lo egiteko ohiturei buruzko testuak irakurtzea eta ulertzea. Nork bere ohiturak ezagutzea. Estatistika batzuk irakurtzea. Datu batzuei buruzko komentario idatzia egitea. Euskaldunon eta argentinarren lo egiteko ohiturak aztertzea. Gaiaren inguruko berriak ulertzea. Nobela baten atala irakurtzea	Konparaketak: Baino ago
16	Paranara goaz!	Aurrekoa errepasatzea. Barnetegira begira jartzea. Barnetegirako ataza batzuk bideratzea. Herri baten deskribatzen saiatzea.	Aurreko guztiak

### IKASLEEN JARRAIPENA

Denek irakurtzen dituzte irakasleak *Ohar-taulan* jarritako mezuak. Agindutako lanak ea egiten dituzten baloratzea oso zaila da, baina zerbait susma daiteke mezuetan galdetutako zalantzen bidez, forora bidalitako ideien bidez. Balorazio hau egiteko garaian, saio bakoitzean irakasleari nahiz foroari igorri behar zioten lana izango dut kontuan, batik bat. Eta nola ez, mintzamenerako sortutako bikoteena eta MSN bidezko txata.

Izena	Asistentzia	Maila
Rocio Bazterra	%100, oso erregularra da eta foroan ere parte hartu du.	Balekoa. Edukiak nahiko nahastuta ditu eta batzuetan sortze lanak ulertzea zaila gertatzen da; beste batzuetan, berriz, primerakoak egiten ditu.

Izena	Asistentzia	Maila
Maddi Sarasola	%100, oso erregularra, foroan ere parte hartzen du.	Oso ondo, zuzena da eta sortze lana ere ondo egiten du. Entzumenetan omen du eragozpen gehiago. Oso aktiboa da talde lanerako.
Edurne Isasa	&90, saioak egin ditu, baina ez hain modu erregularrean. Foroan parte hartzen du eta hori estimatu egiten du.	Ondo, ariketak zuzen egiten ditu, baina nire ustez sortzea oraindik dezente kostatzen zaio, nahiz eta batzuetan lan politik bidali.
Ana Bidegain	%100, oraindik saioen bat bidaltzea falta zaio, baina forora eskatutako guztiak bidali ditu. Mintzameneko bikotean Paularekin lan egin du eta txatean ere parte hartze handia izan du.	Oso ondo. Izugarri aurreratu du. Oso zuzena. Sortze-lanak ere oso ondo. Oso metodiko eta langilea da. Eskatutako guztia egiten du eta, gainera, gero eta autonomoagoa da. On-line ikasteko berebiziko ezaugarriak ditu.
Uxue Agirregomezkorta	%80, erregular lan egiten du eta foroan parte hartzen du, baita txatean ere.	Ondo, iazko mailari eutsi dio eta aurrera doa. Sortzeko gaitasuna du eta egoki egiten ditu lanak.
Maria Mendiguren	%100, oraindik saioen bat falta zaio, baina ikaragarria da. Oso autonomo eta parte-hartzailea eta, gainera, beste ikasleak xaxatzen ditu. Fororako, mintzameneko, txaterako laguntza handia da niretzat.	Oso ondo. Nire ustez, Paulak oso maila ona du eta, agian, kurtsoko edukinak errazak ziren berarentzat. Nolanahi ere, beste iturri batzuetatik entzumenak, irakurmenak...-ikasten badaki eta oso ondo aprobetxatu ditu. PRIMERAN!
Dario Rodriguez	%80, hastea kosta zitzaion, geroztik ondo ari da. Txatean parte hartu du inoiz eta foroan ere bai, baina gutxitan.	Ondo, ondo moldatzen da eta komikatu ere hainbestean egiten da. Nik uste dut batzuetan bere umoreagatik izaten direla zailak eta korapilatsuak berak sortutako testuak.
Garbine Iturrioz	%100, oso fina. Foroan parte hartu du; txatean, ordea, ez.	Oso ondo. Nahiz eta oraindik hutsuneak izan, oso harro nago egin duen ibilbideaz. Edukiak ondo jasotzen ditu eta erabili ere bai. Sortzea oraindik gehiago kostatzen zaio, baina lan bikainak ere egin ditu. Bere prozesua ikaragarria izan da!
Ibon Aresti	%90, azken lanak falta zaizkio, baina foroan, mintzameneko eta txatean parte hartu du.	Oso-osoa ona. Idazteko gaitasun izugarria du eta benetan ondo egiten ditu. Erregistroa, helburu pragmatikoak, komunikatiboak... denak primeran erabiltzen ditu eta oso zuzen gainera.
M <sup>a</sup> Angeles Garcia	% 100, iaz erregularrago aritu zen, baina lan asko egin du eta leku guztietan hartu du parte. Oso aktiboa da eta niri ere lagundu dit materialak aurkitzen, irudiak bilatzen...	Oso ondo, Gabriel, Paula eta Ceciliarekin batera, idatziz, behintzat, maila altuena dutenen taldea osatzen du. Hutsak huts, oso ondo moldatzen da. Talderako ere oso egokia da, gainera.

Izena	Asistentzia	Maila
Paola Arriola José Boccardo	Ia ez da agertu Ia ez da agertu	
Mari Jose Abasolo	%90, azken lanak falta zaizkio. Foroan eta txatean ere parte hartu du eta nahiko erregular lan egin du.	Ondo. Nire ustez, aurrera doa. Tandilgo erdiko taldetik ondoen eutsi diona bera da. Iaztik asko ikasi du eta hori baloratu behar zaio. Oraindik huts dezente ditu eta sortzea kostatu egiten zaio, baina bere ikas-prozesua ona da. Une gogorrak ere pasa ditu, baina orain hobeto, animatuago, dagoela uste dut.
Agurne Pérez	%95, ez da oso erregularra, baina lan egin du. Foroan parte hartu du, txatean apenas.	Ondo ari da. Oraindik nahasketa handi samarra du eta diskurtsoa ondo antolatzea kostatu egiten zaio. Oraindik INPUT gehixeago behar du eta ikasitakoa hobeto barneratu. Aurrera doa.
Julio Montes	%100, oso erregularra, baina ez du parterik hartu, ez foroan ez txatean.	Hainbestekoa. Ariketa analitikoak hainbestean egiten ditu, baina sortzea izugarri kostatzen zaio. L1 lotuegi aritzen da eta bere testuak ulertzea oso zaila izaten da. Ez du adibidei erreparatzen ikasi. Nire ustez hitz soltei edo esaldiei bakarrik begiratzen die, ereduie kasu egin gabe.

### **III. eranskina:**

IRAKASLEON TXOSTENAK

*IKASTAROA:* Tandil, 2005eko urtarrilaren 16tik 29ra

*IRAKASLEA:* Jon Urdangarin

#### TALDEAK

Nire txostena talde aurreratuenari buruzkoa izango bada ere, hiru taldeak oso ondo ikusi ditudala esan behar dut. Ikasle asko erremototik ezagutzen nituen eta esperientzia hau primeran etorri zait benetako maila eza-gutzeko, konputagailu bidez zaila baita oso ikaslearen ezagutza maila eta profila zehatz-mehatz jakitea. Gainera, motibazioa eta talde giroa sustatzeko ezinbestekoa deritzot horrelako egonaldi bati.

Hasierako taldean bi taldetxo bereiziko nituzke, helduenak eta gazteenak. Helduek motibazio handia badute ere, zailtasun handiagoak dituzte. Hala ere, polikiago baina aurrerantz doaz. Gazteek, berriz, hasi berriak izan arren, oso maila txukuna lortu dute. Mariana eta Carina ebaluatzeko datu handirik ez daukat, baina hauek ere aurrera egingo dutela iruditzen zait. Talde hau 1. urratsaren bukaeran ikusten dut nik.

Talde ertainak izugarritzko ezustekoa eman dit. Barnetegian asko aurreratu dutela iruditzen zait. Idatzitik ahozkorako jauzitxo hori eman dute. Egin beharrekoak ahoz egin dituzte barnetegiko azken astean, eta hori positiboa da. Gainera, oso talde-giro ona izan dute eta gogotsu bukatu dute ikastaroa, primeran. Talde hau 2. urratsaren erdian-edo kokatuko nuke nik.

Talde aurreratuenari buruz, berriz, segidan hitz egingo dut.

## TALDE AURRERATUA

### *Ikasleak*

Metxi Del Santo	M <sup>a</sup> Maddi Sarasola
Maria Amelia Irastorza	M <sup>a</sup> Laura Galarraga
Ibon Aresti	Izaro Goia
M <sup>a</sup> Uxue Agirregomezkorta	M <sup>a</sup> Ana Bidegain
Maria Mendiguren	Julio Montes
Edurne Isasa Alzuri	Garbine Iturrioz
Dario Rodriguez	

Talde hau barnetegian hasi zenean, bigarren urratsaren erdia aldean zegoen. Kontuan izan behar da erremotoan ahozkoa lantzea orain arte, behintzat, ezinezkoa izan dela; beraz, edukiz-eta gehiago baziren ere, nik bigarren mailaren erdian-edo kokatuko nituzke. Dena den, esan behar dut batzuek harrিতa utzi nindutela, ahoz ere ondo moldatzen zirelako.

Nik hemengo barnetegietan egoten direnek baino maila apalagoa izango zutela uste nuen, baina ez zen horrelakorik gertatu. Nire ustez, Argentinan presentzialetara joaten direnei nabari zitzairen besteei ez bezalako erraztasuna, jariotasuna...

Gauzak horrela gure helburua erremotoan ikasitakoa praktikan jartzea izan da. Mintzamina lantzea, batez ere. Horretaz gain, ikasleen zalantza eta beharrei erantzuten saiatu gara, baita erremotoan azaltzea zailagoak izan litezkeen edukiak –erlatiboa, esaterako– lantzea ere. Helburua 3. urratsera inguratzea zen, eta nik uste dut lortu dugula. Zenbaiti oraindik ahozkoa kosta egiten zaio, baina oro har maila ona dutela iruditzen zait, Euskal Herriko ikasleentzako parekatzeko modukoa.

Ikasketa-sistema dela eta, ohiko mailaketa egitea ezinezkoa da ikasle hauekin. Gehienek irakurmena eta idazmena oso garatuak dituzte eta eduki gramatikal asko ezagutzen dituzte, baita idatzizko komunikazioarako baliabide eta estrategiak ere. Horko beharretarako, agian, egokia izango da, ikasleek Euskal Herriko informazioa jasotzeko aukera baitute; izan ere, nire ustez, askotan beren beharrak komunikaziozkoak baino gehiago kulturalak eta informazioari dagokionak dira.

Hala eta guztiz ere, urtean zehar, ikastaro pedagogikoak-eta egiten dituztenean, ahozkoa lantzea ere komeniko litzateke. Beharbada, euskal astean zerbait egokitzea ere ez litzateke ideia txarra. Erremotoan ere, teknologiak ahalbidetu ahala, bide berriak esperimentatu beharko genituzke ahozko trebetasuna lantzeko.

## **Garapena**

Talde-giro ona izan dugula uste dut. Oro har nahiko talde homogeneoa da eta hizkuntzaren aldetik ez dut arazorik ikusi. Nortasunari dagokionez, batzuek talka egiten dute, baina ohiko neurrietan. Gauza normala da hori eta izan dituzten desadostasunak ondo konpondu dituzte. Ez dugu arazorik izan talde lanik egiteko, eta jarduerak agindu bezala bete dituzte.

Barnetegian aurrera egin dute, zenbaitetan eskolaz kanpo ere euskaraz egiten zuten, baina aurreratze hori ez da talde ertainean bezain erraz ageri (behin hizketan hasita, hobekuntza nabarmentzea zailagoa izaten da). Ikastaro bukaera aldera, batzuk nekatuta ikusi ditut, baina inor ez zaigu atzera geratu eta eskolan eskatutakoari oso ondo erantzun diote.

Denek egin dute lan ondo eta bakarkako lanerako eskatutakoa ere zintzo-zintzo bete dute. Interesa azaldu dute eta oso motibatuta daude. Primeran!

## *EGINDAKOA*

Batez ere, Maizpiden erabiltzen dugun materiala erabili dugu eskolak emateko. Horretaz gain, BARREN-DIK-eko bi unitate eta Gabik irtenaldietarako prestatutako materiala. Hona hemen egunegun:

1	Aurkezpena	Helburua: Egokitu, elkarren berri izan eta nork bere burua aurkezten trebatzea, idatziz nahiz ahoz. (materialik ez genuenez ahoz egin genuen guztia)
2	Eskulanak	BARRENDIK- Eskulanak unitatea Entzutezko testuak ulertzea Azalpenak ematea, usteak azaltzea. Galdegaia
3	Zarata	Maizpideko materiala. Iritziak azaltzea, eta roll bati jarraituz eztabaidatzea. Informazioa trukitzea ahoz Idatzizko testuak ulertzea.
4	Medikutan	Maizpideko materiala Ipuina osatzea. Testuak irakurri eta elkarri kontatzea. Eztabaidatzea. Musikoterapian zein musikak zertarako balio dezakeen. Ipuin bat entzutea eta ulertzea
5	Ipuinak	Maizpideko materiala Ipuinak osatzea. Ipuinak asmatu eta elkarri kontatzea. Ipuina idaztea. Ipuina Cdrom-ean ikusi eta elkarri kontatzea
6	Amodio kontuak barnetegian  Txangoari buruzko materiala	Maizpideko material egokitua Testuak irakurri eta elkarri kontatzea -ELA erabiliz. Gaiari buruz mintzatzea eta Argentinako ohituren berri ematea (non, nola...ligatzen den) Egunkariko harremanak saila irakurtzea. Iragarki bat idaztea. Zehar galderak lantzea. Bidaia agentziei buruzko iritziak entzutea eta ulertzea. Horretaz mintzatzea. Txangoaren berri izatea eta hiztegia lantzea.
7	Txangoa	Lasaitzea, Tandil ezagutzea eta harremanak sendotzea.
8	Txango ondorengoa	Txangoari buruzko materiala eta aurretik atzeratutakoa, batez ere, "amodio kontuak barnetegian" egunekoak.
9	Auzokide bila	BARRENDIK-eko materiala Etxearen inguruko ezaugarriez erabakitzea eta arrazoiak ematea. Deskribapenak egitea Irakurketa xehea eta instrukzioak jaso eta ematen trebatzea. Aukera bat arrazoitzea
10	Etxea, barnetegia "reality-a"	Maizpideko materiala, Argentinan bertan egokitua. Erlatiboa lantzea. <i>Reality showez</i> iritzia azaltzea. Ipuina entzun eta bukaera asmatzea. Norbait taldean aukeratzeko arrazoiak bilatu eta ematea. adjektiboak
11	Filmak	Maizpideko materiala. Zinemaren eta gustuen inguruan mintzatzea. Erlatiboa lantzea.

		Sinopsiak eta izenburuak lotzea. Sinopsi bat idaztea. Besteek idatzitako sinopsia ulertu eta zein filmari buruzkoa den asmatzea. Entzutezko testu baten ulermen xehea. Zinemari buruzko jokoak, talde dinamika sustatzea.
12	Maitasuna	Maizpideko materiala Ahozko testu bat ulertzea. NOR-NORK lantzea Testu baten ulermen xehea. Maitasunaren inguruko testu baten berri ematea. Bikotean zoriotsu izateko beharrezkoa dena zerrendatzea eta horren inguruan nork bere iritzia azaltzea. Kantu baten hitzak osatzea.
13	Nahas-mahas	Maizpideko materiala Atzeratutako materiala eta ahozkoak lantzeko teknikak: antzerkitxo laburrak, nork zer esan duen errepikaraztea...
14	Azken eguna	Ikasleen galderei erantzun. Zalantzak argitu, erremotorako proposamenak jaso. Bilera orokorra. Altxorraren bila.

## Ordutegia

Azken egunean izan ezik, barnetegietako ohikoa izan da. Ikasleek 6 ikastordu izan dituzte; horietako bat: bakarkako lana. Nire ustez ordutegia, hasieran arratsaldeko saioak berandu samar zirela iruditzen bazitzaizdan ere, nahiko egokia da, bazkal ostean ikasleari bere kasa ibiltzeko aukera ematen baitio.

Ikastaroaren iraupena egokia iruditu zait; nolana ere, tarteko asteburuan jai egun bat izatea egokia izango litzateke, aurreko egunetakoa pixka bat finkatu eta deskantsatzeko.

Gure erritmoa nahiko trinkoa izan da, eta, azkenerako, ikasleek nekatu samar bukatu dutela iruditu zait. Baina hala behar du, ez baitira oporretara joaten.

## AURRERA BEGIRA

### *Ikasleen balorazioa*

Kontuan izan behar da ikasle hauek gehienek erremotoan ahozko trebetasunik ez dutela lantzen eta, beraz, horretan makalxeago ibiltzea normala dela. Kontuak kontu, ez zait iruditzen Euskal Herriko barnetegietakoak baino askoz atzerago dabilzanik; honenbestez, poztekoa da. Barnetegia bukatuta 3. urratsaren hasieran kokatuko nituzke nik. Hau da, 2. urratsa gainditu dutela iruditzen zait, eta datorren erremoto aldirako helburua, uztaierako 3. urratsean aurrera egitea izango litzateke.

Lanari dagokionez, ikasle guztiak gogor saiatu dira eta eskatutako lanak ondo bete dituzte. Asistentzia ere ona izan da eta alde horretatik ez dago inolako eragozpenik.

Metxi del Santo	Erremotoan ordezkoa zenez, bere lanik ez dut jaso; beraz, ez nuen bere mailaren berri. Barnetegian oso maila ona eman du, adierazkortasun handia du eta talde dinamikarako oso egokia da. Beste trebetasunetan ere ondo moldatzen da. Primeran!
-----------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

M <sup>a</sup> Amelia Irastorza	Lehenengo astean izan genuen. Sei eskola-egun ez dira nahikoa ikaslearen maila ongi neurtzeko. Dena den, talde ertainean egon behar lukeela iruditzen zait. Berak ere, zenbaitetan eskatutakoa ez zuela ondo ulertzen adierazi zuen. Izan liteke irakasleonek errua, baina berari erdiko taldea dagokiola uste dut. Nolanahi ere, irakasle eta ikasle fina denez, ez du/luke aurreko taldean izateko ere gaindi ezinezko zailtasunik izan behar.
Ibon Aresti	Ona, nabari da presentzialetan ere maila altuagoan ibiltzen dela. Ondo aritu da eta maila ona du trebetasun guztietan. Primeran!
M <sup>a</sup> Belén Girasole	Ona, ondo moldatzen da trebetasun guztietan. Dena den, hitz egitea kostatu egingo da.
Maria Mendiguren	Ona. Erremototik aurreiritzi hobea nuen (oso idatzi luzeak eta onak egiten ditu erremotoan). Hala eta guztiz ere, lau trebetasunetan ondo moldatzen da. Oso saiatua da. Zerbait esaten hasita, ahoskera du txar samarra, baina... Primeran!
Edurne Isasa	Ona, oso langilea eta, isil samarra bada ere, trebetasun guztietan moldatzen da. Zuzenekoan erremotoan baino hobea iruditu zitzaidan. Ezustekoa izan da niretzat.
Garbine Iturrioz	Erremotoan nire ikasle kuttuna da. Ikustekoa da zenbat aurreratu duen! Nabari da denbora duela eta euskara ikasten ematen duela. Hasiera batean, talde ertainean jarri genuen aurreko barnetegiko sailkapenari jarraitu geniolako, baina talde hura handia zela, saritxo bat merezi zuela... taldez aldatzea erabaki genuen. Ahozkoan makal samar dabil, baina ikasiko du. Nire ustez poza eman zion taldez aldatzeak. Oso motibatua dago eta ikasiko du. Ederki! Lanak egiten besteek baino denbora gehixeko ematen bazuen ere, ez da oztopo izan ikasgelan; eta askotan talde girorako oso baliagarria izan da.
Dario Rodriges	Ona. Isila da, baina ondo moldatzen da lau trebetasunetan. Klaserako oso umoretsua eta ikaslearen artean oso estimatua. Ondo!
M <sup>a</sup> Maddi Sarasola	Oso ona. Astebete eman zuen, baina erremotoan ikusitakoa baieztatu zuen. Primerako maila du, idatziz nahi ahoz. Oso-oso ondo.
M <sup>a</sup> Laura Galarraga	Ez nuen ezagutzen. Maila ona duela iruditzen zait. Isila da, baina lau trebetasunak maila orekatuan ditu garatuak. Oso ondo!
Izaro Goia	Diaspora 2 taldekoekin ibilia da. Ulermena eta idazmena oso garatuak ditu; baina, hitz egitea dezente kostatzen zaio. Beste ikasleek adinako maila badu, baina ahozkoan hobetu egin behar du, trebetasun guztien maila orekatzeko. Ondo!
M <sup>a</sup> Ana Bidegain	Oso ikasle saiatua da. Erremotoan lan asko egin du, izugarri aurreratu du, oso metodikoa da eta aurrez aurrekoan ere horri eutsi dio. Ondo moldatzen da. Ahozkoan hobetu behar du. Ondo!
Julio Montes	Langilea da, baina bere kasa ibiltzea gustatzen zaio. Nik erremototik bakarrik ezagutzen nuen ezin dut gauza handirik kontatu, baina bere ikaskideek esan didate barnetegi honetan oso pozik ibili dela eta besteekin harreman gehiago izan duela. Eduki aldetik asko dakiela iruditzen zait, baina, gero, diskurtsoa osatzea kostatu egingo da, bai ahoz bai idatziz. Testu erak gehiago landu behar litzuke.

## *Irakaslanaren antolaketa*

Barnetegiaren balorazioa, nire ustez, oso positiboa izan da. Argentinako beste barnetegirik ez dut ezagutzen, baina ikasleak gustura ibili direla eta hasiera batean jarritako helburuak bete direla iruditzen zait. Euskal Herrikoekin alderatuta, berriz, maila beretsuari eutsi diogula uste dut. Horregatik diot balantzea oso positiboa dela.

Aurtengoan, nik ikasleekin erremotoan dudan harremana zela bide, antolaketa antolatu dugu: ikasgela guztietatik 3 irakasle pasatzen hasi gara. Ikasleek hori eskertu egin dute, eta guk ere bai; nolana ere, antolatzeko garaian zailtasunak izan ditugu: koordinazioa, ordutegia, baliabideak...

Batzuetan irakasle, antolatzailer, erremotoko irakaslearen (nire) arteko informazioa falta izan zaigu, eta aurrerantzean hori hobetu beharreko kontua da. Hona hemen nik sentitutakoa:

Ikastaroaren arduraduna nor zen ez jakitea: Nor zen arduraduna? Kinku? Gabi? Ni? Hiruretako inor ez bazen, jakitea ere ez legoke gaizki. Honekin ez dut esan nahi, derrigor, arduraduna beharrezkoa denik, baina egoera zein den jakin behar genuke.

Argentinara iritsi nintzenean, ikastaro osoaren ardura nire gain balego bezala sentitu nintzen, taldeak banatu eta zenbait egunetan hiru taldeetako jarduna neronek antolatu nuen. Joan aurretik egin nezakeen, baina ez zitzaidan egokia iruditzen inoiz izan gabeko leku batean nire irizpideak ezartzea, aldeztatik besteekin hitz egin gabe. Lehenengo egunetan zera galdetzen nion neure buruari. “urte batean irabazitakoa, bi astetan galduko ote dugu?

Egoera horrek hasieran irakasleen arteko giro tentsioa (ez txarra) sortu zuen. Azkenerako, ordea, dena konpondu egin zen eta Irenerekin nahiko modu koordinatuan lan egin nuen, eta Luciarekin ere harremana gozatu zen, behintzat.

Aurrera begira, beraz, barnetegiko antolatzailer eta erremotoko irakaslearen arteko koordinazio handiagoa beharko genuke. Barnetegiaren helburua erremotoan landutakoa praktikan jartzea bada, hori lotuago eraman behar da. Komunikazio handiagoa behar da ikasturtean zehar, eta, batez ere, barnetegiaren bezperan.

Horretaz gain, irakasleen arteko koordinazioa ahalbidetzeko lan-orduren bat zehaztuko nuke, edo bestela, barnetegiaren egonik, adostu: bazkalostean, kafetxo bat hartuz; ikasleak bakarkako lanean ari direla, bide batez, haiei lagunduz...

Horrela hiru ikasgeletako lana lotuago eramango genuke eta eguneko jarduna osoagoa izango litzateke, eta helburuak zehatzagoak.

Hau guztia ondo egiteko, argitaratutako materialaz gain, bertan sortutakoa oso garrantzitsua da. Beraz, tresneriari dagokionez, konputagailu bat (bi edo hiru) beharko genuke eskura. Konputagailu oso bat: inpresora, altabozak, cdrom irakurgailua...

Fotokopiadora eskolan bertan izatea ere aurrerapen handia izango litzateke, baina hori, ziur aski, ez dago gure esku.

Eskolan landu beharreko ikasgaiak, barnetegiko nahiz Argentinako errealitatearekin lotzen saiatuko nintzateke. Horretarako ezinbestekoa da horkoen laguntza.

(adibidez, aurten txangoetarako antolatutako oso ondo atera dira. Edo, ikasleen argazkiak oinarri hartuta presatutako materialak, edo Patuaren gorabeherekin osatutako ipuina...)

Gainera, Euskal Herriko kontuak ere landuko nituzke. Baita nobelatxoren bat irakurri ere.

Eskolan, 7:30etaik 9etarako saioan, afal ondorenerako ekintzak antolatzea –antzerkitxoak, abestiak, txistek...– ere ez legoke gaizki. Honek ez luke zertan eguneroko lana izanik.



### *Ikaslearen eta irakaslearen arteko egokitzea*

Ikasleak konputagailuz ezagutu eta gero zuzen-zuzenean ezagutzea orain arte ezagutzen ez nuen egoera berezia da, girotea eta egokitzea eskatzen duena.

Hasierako lana: nola haiei hala niri erremotoan sortutako espektatiba, ideia, aurreiritziei aurre egin eta berregokitzea izan zen. Horrek niri, behintzat, nolabaiteko urduritasuna sortu zidan, eta uste baino gogorragoa gertatu zitzaidan hasiera. Aurrerantzean, ordea, errazagoa izango da hori ere.

Ikasleak ezagutzea erremotoko bidea hobeto zehazteko izugarritzko laguntza izango da, eta hemendik aurrera bidea errazago eta finkatuago ikusten dut. Ikasleei era pertsonalizatuan erantzuteko ere baliabide gehiago dut orain. Interesgarria izango da aurrerakoa.

### *EGOITZA*

Hotela eta eskolak egokiak izan dira, eta gustura izan gara. Bertako jendea oso atsegina da eta gure egonaldia erraztu egin digute. Oso ondo.

Horrez gainera, Gabiren lana eskertu nahi dut nik. Izugarritzko laguntza izan da denontzat eta, niri, behintzat, unerik larri edo gogorrenetan bene-benetako laguntza eman dit. Benetan eskertzekoa! Hurrengoan ahal balitz, irakasle lanetan aritzea ere ez legoke gaizki. Intendentzia kontuak egingo genituzke nolabait.

Irene eta Lucia ere primerako lankideak irudiu zaizkit eta Kinku ere bai. Beraz, oso esperientzia polita, aberasgarria eta baliagarria izan dela esanez bukatuko dut txosten hau.

### **IV. Eranskina:**

Tandil, 29 de enero de 2005

Valoraciones, opiniones, sugerencias.

Terminado el barnetegi, seguimos adelante, y para poder potenciar aciertos y corregir errores, necesitamos tu valoración. La puedes hacer en forma anónima. Te pedimos que punto a punto respondas las siguientes preguntas.

#### El curso en remoto y el barnetegi

¿Hubo continuidad entre lo trabajado en el remoto y lo trabajado en el barnetegi?

Tomando el tipo y ritmo de cursada del remoto y del barnetegi, ¿qué ventajas y desventajas tienen cada uno?

#### El curso en remoto

¿Te encontraste con dificultades para el curso en remoto? ¿Cuáles? ¿Las pudiste solucionar? ¿Las podrás solucionar?

¿Qué sugerencias harías de cara al remoto?

¿Cómo te ves con respecto al remoto en los próximos meses hasta el barnetegi de invierno?

### La duración del curso, las clases

¿Cómo te resultó el curso de 15 días? ¿Cuándo sentiste tu mejor rendimiento? ¿Sentiste algún bajón en el rendimiento, en qué momento?

¿Qué te pareció el horario y la duración de las clases?

### Profesoras, profesores, dinámica, materiales

¿Qué te pareció la modalidad de dictado en cuanto a rotación de las/los profesores?

¿Podrías nombrar la/s actividad/es o dinámicas que más y que menos te gustaron? ¿Por qué si y por qué no?

¿Qué opinás sobre los siguientes puntos (por ejemplo, si los materiales fueron variados, interesantes, las explicaciones claras, el ritmo adecuado...)?

- Ritmo de las clases
- Materiales
- Explicaciones
- Actividades

### Actividades extra-aulas

¿Te parecieron necesarias?

¿Cuál es el aprovechamiento de estas actividades en el barnetegi?

### Alojamiento, comidas, aire libre

¿Qué puntos destacarías como lo más adecuado y lo menos en cuanto al hotel, las comidas, la escuela, el club?

### Próximo barnetegi

¿Qué sugerencias podés acercarnos respecto a:

- duración
- fecha
- tipo de trabajo a realizar

### **El plan: el camino que estamos haciendo de euskaldunización y preparación pedagógica y tus expectativas**

¿Estás conforme con el ritmo del proceso?

¿Conocés los objetivos prefijados?

¿Estás realizando alguna tarea vinculada al euskera en tu centro vasco? ¿Cuál?

¿Cuáles son tus perspectivas de compromiso en cuanto a actividades a iniciar y/o continuar para la transmisión del euskera?

- tipo de actividad

- cuándo la iniciaste/ cuándo la iniciarías

- tareas ya planificadas o por planificar con la Comisión Directiva del Centro Vasco

**Como último pedido, si tenés otros comentarios, sugerencias, propuestas referidas al curso en remoto y al barnetegi, serán bienvenidas.**

¿Cuál es tu grado de satisfacción con respecto al trabajo desarrollado por las instituciones afectadas?

¿Euskal Etxea?

¿Feva?

¿Habe?

¿Les harías alguna sugerencia?

## **V. eranskina**

*Jornadas Pedagógicas abril de 2006*

“Nociones básicas de gramática española para el aprendizaje y la enseñanza del euskera” Prof. María Maddi Sarasola

### *Justificación y objetivos*

Las presentes Jornadas Pedagógicas “Nociones básicas de gramática española para el aprendizaje y la enseñanza del euskera” surgen de la necesidad de muchos miembros del Programa de Formación de Profesores de HABE-FEVA de contar con algunos elementos teóricos para facilitar el aprendizaje propio del euskera y su posterior enseñanza.

El objetivo de las Jornadas será, en primer lugar, estimular la reflexión sobre la gramática del español para percibir sus similitudes y diferencias con el euskera. En segundo lugar, se buscará formalizar dichas reflexiones por medio de los conceptos de la gramática tradicional. La reflexión como paso anterior a la formalización tiene como objeto que las nociones aprendidas no constituyan meros rótulos sino que se erijan como conceptos útiles para la profundización de los conocimientos de euskera ya adquiridos y, principalmente, para la enseñanza del euskera.

## *Metodología de trabajo*

Las clases que conforman las Jornadas tendrán carácter teórico-práctico. En todos los casos, se comenzará desde los conocimientos que tienen los participantes del español para intentar formalizar dichos conocimientos, sabiendo que dicha formalización constituye una tarea compleja, por cuanto es más simple teorizar sobre una lengua extranjera que sobre la propia, por el carácter casi inconsciente de la lengua materna.

Luego se procederá a la comparación del tema analizado en euskera, para analizar cuáles son los puntos de contacto y cuáles las diferencias. Finalmente, se intentará encontrar algún mecanismo o estrategia que resulte útil para explicar el tema a futuros alumnos.

## *Contenidos*

Los contenidos propuestos a continuación buscan abastecer tanto los conocimientos necesarios para un entendimiento básico de la gramática del español (señalados en cada unidad con la letra *a*) como los problemas que el euskera presenta en su aprendizaje y enseñanza (señalados en cada unidad con la letra *b*).

### Unidad 1

- a) Las categorías gramaticales: generalidades. Categorías del español y del euskera. Categorías variables: nociones de ‘flexión’, ‘declinación’ y ‘conjugación’. Categorías invariables.
- b) Las diferencias entre *nola* y *nolakoa*.

### Unidad 2

- a) El sintagma nominal: sustantivos y adjetivos. La inexistencia del artículo en euskera. El orden del sintagma en castellano y en euskera. La declinación.
- b) El sintagma nominal en euskera. Los sintagmas con elisión de núcleo (*norena*, *nongoa* etc)

### Unidad 3

- a) El verbo. La conjugación verbal. Las categorías de persona, número, tiempo, modo y voz. Los auxiliares verbales en español y en euskera. El aspecto.
- b) Los formantes de los auxiliares verbales del euskera según el caso (*nor*, *nor-nork*, *nor-nori*, *nor-nori-nork*). Las diferencias entre los participios del euskera (*egin* / *egiten*) según su aspecto.

### Unidad 4

- a) Los complementos del verbo. Verbos copulativos y atributo. Verbos intransitivos. Verbos transitivos. El objeto directo y el objeto de indirecto: su identificación.
- b) Los verbos copulativos / intransitivos / transitivos en euskera. Mecanismos para evitar la confusión entre *nor-nork*, *nor-nori* y *nor-nori-nork*.

Jornadas Pedagógicas abril de 2006 “Nociones básicas de gramática española para el aprendizaje y la enseñanza del euskera” Prof. María Maddi Sarasola

### Unidad 5

- a) Las oraciones subordinadas: sustantivas o completivas, adjetivas o relativas y adverbiales. Su construcción en castellano. Concepto de ‘antecedente’. Tipos de subordinantes con y sin función sintáctica.

- b) Las subordinadas en euskera. Dificultades con el erlatibo: sustantivo pospuesto, elisión del sustantivo. Konpletiboak: su construcción e identificación. Algunas subordinadas adverbiales en euskera: concesivas, temporales, condicionales.

#### Cronograma

##### Sábado 22 de abril

- Primer bloque (11.00 a 12.30 hs): Unidad 1.
- Segundo bloque (12.45 a 14 hs): Unidad 2.
- Tercer bloque (16 hs a 17.45 hs): Unidad 3.
- Cuarto bloque (18.15 a 20 hs): Unidad 4.

##### Domingo 23 de abril

- Quinto bloque (9 a 10.45 hs): Unidad 5.
- Sexto bloque (11.15 a 13 hs): Síntesis de todas las unidades. Conclusiones. Propuestas.

#### **Bibliografía**

##### **HABE, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa**

**Saila** 2005. Ikaskuntza irakaskuntza eta ebaluazioarako europako erreferentzia markoa.

**Jordi Adell, J., Sales, A.** El profesor online: elementos para la definición de un nuevo rol docente.

<http://www.tecnologiaedu.us.es/edutec/paginas/105.html>

**Duart, J.** 2000. Aprender sin distancias. In Formación virtual. Suplemento educativo de Educaweb. <http://Educaweb.com>.

**Zinkunegi, J.** 2002. Euskara Euskaldunen atzetik (I). Hizpide 51: 34-47.

**Zinkunegi, J.** 2005. Euskara Euskaldunen atzetik: Argentinan euskaraz-etik Euskara munduan-era (eta II). Hizpide 58: 39-51.

**Ripley, P.** 1997. The guru and the conjurer: aspect of counselling for self-access. In Phil Benson and Peter Voller (eds), *Autonomy and Independence in Language Learning*. Longman: 93-131.